

literatura
toti mtz de lezea

zinea
zinemastea

QEU

2,40 €

2007ko otsaila



170

gaia
korrika 15

arte
koko rico

musika
harrobi

antzerkia
unai lpz de armentia



xabier arakistain
montehermoso kulturuneko
zuzendari berria



ZENTRO

BERRIA

ZENTROAN

bai & by

GASTEIZKO ZENTRUAN bai & by **ZENTRU BERRI BAT**

ADIMENDUN SISTEMA BAKARRA · INGELESA & EUSKARA DIRUZ LAGUNDUAK
ZERBITZU BERRIAK: INTERNET 24 ORDUZ · ON LINE AHOLKULARITZA · TELEFONO-ESKOLAK...

bai & by -ko **IKASLEA BAZARA, INFORMA ZAITEZ ZENTRO BERRIAN,**

...ETA ORAINDIK EZ BAZARA, ZEREN ZAIN ZAUDE??? 945 15 71 10. K/ ADRIANO VI , 12. **GASTEIZ**

SUMARIOA 170



zeregin 4

otsaileko agenda

iritzia 7

-eskola publiko & euskalduna,
gasteizko alde zaharrean

-radio vitoria & euskara

geupertsonaia 9

toti mtz. de lezea idazlea

geupertsonaia 13

xabier arakistain, 'arakis'. montehermoso
kulturuneko zuzendari berria

euskaltasunean. gasteiz 16

ane gebara

geugaia 17

korrika 15

geugaia 21

zinemastea. euskal zinemaren astea

artetxokoa 24

koko rico eskultorea

artetxokoa 26

harrobi musika taldea

artetxokoa 28

unai lpz. de armentia antzerki-aktorea

batbitan 30

xabier gorostiza enologoa.
ardo-dastatze ikastaroa

proposamenak 32

hur&gaste literatura

cd-a&liburua&zinea / txabi arnal

historia&euskara 34

araba eta topikoak (I)

bidai 36

inauterietan barna

errezeta 36

arraztak & barazkiak

umorea 37

iñigo sarasola

arababixotzian / historiazutabea 38

mundina / erlantz urtasun



korrika  **baek**
KARRANTZA-IRUÑEA 2007
MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era



GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
| Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua |
erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa.
eta faxa: 945 22 21 53 | e-mail: geugaste@grn.es |
www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de
zarate | aldizkari batzordea: david alvez, edume begiristain,
josune velez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas
| kazetariak: josune velez de mendizabal, edume begiristain,
maite lekue, saioa fdz de arangiz, ainhoa arriag, naroa cuesta
eta anakoz amenabar | azaleko argazkia: edorta sanz |
argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu
breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-
orrazketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak:
geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola
| kolaboratzaileak ale honetan: mundina, kike fdz. de pinedo,
txabi arnal, erlantz urtasun, diocesanas-mendizorrotzako
ostalaritza eskola, diego castañares, iban zaldia | publikatzea:
geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria |
harpidetza-publikitate laguntzailea: edurne begiristain |
inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-
582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari
hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du
bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:




GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

otsailak 18, igandea
 aratzen ekialdean dagoen ALLARTEra (1231m)
 irteera: lovaina plazatik
 ordua: 9:00etan arduraduna: txipi (945132758)

KULTUR ERROTA

otsailak 27, asteartea
 HARRESIAN ZULO talde arabarraren perkusio doinuek hartuko dute parral taberna (KORRIKA KULTURALAren barruan)
 lekua: parral taberna ordua: 20:30ean

IRAKURLE KLUBA

otsailak 22, osteguna
 liburua: pruden gartzia, LAZARRAGA, ERNAZIMENTUA EUSKARAZ, pamiela 2005
 lekua: hikaateneoa (pintore kalea, 13)
 ordua: 20:00etan
 dinamizatzailea: iban zaldúa
 >martxoan jorratuko den liburua: robert walser, JACOB VON GUNTEN, erein 2005
geugasteiz.com

GEU ELKARTEAK & GEU ALDIZKARIAK NEFF-EKO ZINEMASTEAN

EMETIK BERTSO-KABARETA

(bertsio berritua)
 parral tabernan, **otsailak 22, osteguna, 20:30ean**
 hiru emakume bertsolariren saio esperimental da emetik bertso-kabareta. askotariko emanaldia, koloretsua, gordina, umoretsua eta pikantea.

taberna giroan, kabareten izpiritua bere eginez, entzuleei une entretenigarria eskaini eta emakumeen ahotsak eta bizipenak bertsotan ematea du helburu. emanaldia girotzeko, eszenografia, musika, olerkiak, antzerki elementuak eta bestelakoak baliatuko dituzte.

partaideak: iratxe ibarra, onintza enbeita eta oihane perea

HARROBI TALDEAREN KONTZERTUA

arratiatik (igorre) datozkigun kalitatezko ingalaterako pop-rock doinuek. euren lehen lana den 'moai' aurkeztuko dute. gora tabernan, **otsailak 23, ostirala, 20:30ean**

euskadikosoinuak.com



KORRIKA KULTURALA GASTEIZ

otsaila

3: korrika txotx, hernani
 10: anestesia+itaka, gaztetxea, 21etan
 15: inauteri jaiak, gaztetxea, 20etan
 23: kulturbira, kalez kale
 23: bbk, dendaraba, 20etan
 24: mikel egiluz, hala bedi taberna, 20etan
 27: harresian zulo, parral, 20:30ean (geu)
korrika.org



MENDIALDEKO ERREBANTXA SARIA 2007

otsailak 10, larunbata
 19:00etan, kanpezuko kultur etxean
 2006ko arabako bertsolari txapelketako finalistak
 manex agirre, asier otamendi, oihane perea, zigor enbeita, iñaki viñaspre, juan mari juaristi
 + afora elortzako lurkoi baserri eskolan (lotara geratzeko aukera dago)
 prezioa: 15 euro
 [lotarako eta afarirako izen ematea, otsailaren 5a baino lehen arabako bertsozale elkartearen]
 arabako bertsozale elkarte (amaia zentroa, benito pérez galdós z/g, gasteiz). 945 010505 (goizez) - 675707971 (arratsaldez)
araba@bertsozale.com

ABTX 07

badator abtx 07, eta "zer da hori ba?", galdetuko duzue askok. erantzuna sinplea da, **ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2007**. urtero bezala gure probintzia honetako bertsolariak bertsotan, txapelketak ematen duen grina eta emozioarekin, ikusteko aukera paregabea da.

aurten beti bezala kanporaketak, finalerdiak eta finala egongo dira. kanporaketak afal osteko saioak bihurtu dira bertsolari berri eta gazteei giroa gozatzeko asmoarekin. **otsailaren 24an** amurrioko txakolindegian hasiko da dena, eta beste kanporaketen ostean, **martxoaren 2** eskuernagako luis cañas bodegan eta **3an** araiako sagardotegian, hobeena egiten duten 12 onenak, finalerdietara pasako dira. lehena gopegin jokatuko da **martxoaren 18an** eta bigarrena aramaion **25ean**. eta aste santutako oporren ostean, **apirilaren 21ean**, gasteizen, gure kapitalean, arabako bihotzean, final handia jokatuko da. hau laburpen txiki bat izan da, baina afarrietara apuntatu nahi izanez gero arabako bertsozale elkarteak telefonora deitu: 945010505, eta txapelketari buruzko informazioa bertsozale.com webgunean aurkitu ahal izango da. gure probintziako bertsolaritza, euskera, kultura,... bultzatzeko eta gozatzeko aukera da txapelketa, animatu zaitez!
bertsozale.com

UDA HONETAN, BERTSO ABENTURA ZUHATZAN!!!

arabako bertsozale elkartearen berto udaleku txikia antolatu du irailean, zuhatzako uhartean
 hartzaileak: 9 urtetik 12 urtera bitarteko haurrak

datak: irailaren 3tik 6ra
 helburua: bertsolaritza ezagutzea eta ur kirolak eginez eta hizkuntzarekin jolastuz ondo pasatzea. prezioa: 80 euro
 matrikula orriak: amaia zentroan, atezainari eskatu. aurreinskripzioa: arabako haurrentzat martxoaren 1era bitartean dago zabalik, ordurarte lehentasuna izango dutelarik. oharra: aurreinskripzioa egin dutenei gutun bat bidaliko zaie martxoan zehar matrikula formalizatzeke eta dagokion ordainketa egiteko.
 arabako bertsozale elkarte (amaia zentroa,



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa



benito perez galdos z/g, gasteiz. 945 010505 (goizez) - 675707971 (arratsaldez) araba@bertsozale.com

JESUS OBRERO & VIII. JON AIZPURU eskola arteko BERTSO & EUSKAL KANTA SARIA



ARABAKO BERTSOLARI ETA KANTARI GAZTEEN ARTEKO FINALA **otsailak 10**, dendaraban, 19:30ean JON AIZPURU EUSKARAREN ALDEKO BIZIKLETA MARTXA **otsailak 11**, 12:30ean Jesus obreroko patioan paseotxo bat bizikletaz eta euskaraz (ekitaldi egokia guraso eta ikasle euskaldunentzat. kaskoa behar da. parte- hartzaileei kamiseta polita oparituko zaie) **j-obrero.es**

ARDO-DASTATZE IKASTAROA

irakaslea: xabier gorostiza enologoa iraupena: 24 ordu datak: **otsailaren 20tik martxoaren 16ra** bitartean, astearte eta ostiraletan [otsailak 20-23-27 martxoak 2-6-9-13-16] ordutegia: 17:00-20:00 lekua: diocesan-mendizorrotzako ostalaritza eskola



gehieneko kopurua: 20 matrikula prezioa: 100 euro antolatzaileak: araba euskaraz 07 & diocesan-mendizorrotzako ostalaritza eskola laguntzaileak: abra, arabako foru aldundia, geu aldizkaria izena emateko epea: otsailaren 9ra arte. 615731850

arabaeuskaraz@ikastola.net

GAUEKOAK



FIMO TAILERRA EUSKAL JOLASAK **otsailak 2, 9, 23 eta martxoak 2** aldabe gizarte etxean, 22:00-24:00 izena-ematea: bertan, jarduera hasi arteko epean, 8:30-21:00 (astelehengandea) **vitoria-gasteiz.org gauekoak.com**

GORA TABERNA

(gasteizko alde zaharra, 945121452) **otsailak 8**, ostirala, 20:30ean **KARIDADEKO BENTA+DJ BULL** (ika & hala bedi-ko 3kortxeak antolatua) **otsailak 14**, asteazkena, 20:30ean **VICTOR DE DIEGO GROUP** **otsailak 23**, ostirala, 20:30ean **HARROBI TALDEA** (neff & geu aldizkariak-elkartea & gora-k antolatua)

PARRAL TABERNA

(gasteizko alde zaharra) **KONTZERTUAK, ANTZERKIA, ERREZITALDIK, DIAPORAMAK...** asteartero, 20:30ean **22an** (osteguna), emetik bertso-kabareta, neff & geu elkartea & aldizkariaren eskutik **27an** (asteartea), harresian zulo, geu elkartea & korrika kulturalaren eskutik

BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

ARTIUM: igandero, 11:30ean. doan [taldeentzat (25 lagun gehienez) gidari-zerbitzua kontrata daiteke (aldez aurretik abisatuz. 75 euro orora, sarrera barne)] **945209010 artium.org** **MONTEHERMOSO: aldez aurretik hitzartu** (945161830) **vitoria-gasteiz.org** **IRUÑA-VELEIA: 945403044 / 652720947 veleia.com** **ANDRA MARI KATEDRALA: 945255135 catedralvitoria.com**

ARTIUM-EN BESTELAKO EKINTZAK



-ERAKUSKETATXOAK (elebiduna) "neskato ile motzak, mutiko ile luzeak, futboleak egiten duten neskatoak, etxetoetara jolasten diren mutikoak..." atari aretoan, **martxoaren 18 arte** **-ARTIUM txikia** begiraleak elebidunak dira eta parte-hartzaileek erabiltzen duten hizkuntza erabili ohi dute arte garaikidearekin harremanetan jarriko dira txikiak elkarriketa aktibo eta dibertigarrien ondoren adierazpen plastikoak lantegi bat eginez. **MISTERIOZKO ITZALAK** **otsailak 4 eta 18** (igandea) **-GOIZEAN ARTIUMen** begiraleak elebidunak dira eta parte-hartzaileek erabiltzen duten hizkuntza

erabili ohi dute. jarduera hauek artearen zuzeneko esperientzia izan nahi duten haurrentzat dira. Erakusketetako artelanak ikusiko dituzte lehendabizi eta, gero, artista bihurtuko dira lantegietan.

-MUSEOAREN BARRUAN EURIA ARI DU ETA! otsailak 4 (igandea) **-GOAZEN ESPERIMENTUAK EGITERA! otsailak 11** (igandea) **-EZ DAGO KOLORERIK ETA! otsailak 18** (igandea) **-TXALOKA ARI DIRA! otsailak 25** (igandea) **945209010 artium.org**

ANTZERKIA

'ARTEA'. **TXALO PRODUKZIOAK** **otsailak 15**, 20:30ean, principal antzokian (gasteizko neguko antzerki denboraldia) antolatzailea: principal antzokia sarrerak: 17/12/9 euro (ohiko deskontuak) [leihatilan / telefonoz: 945161045] **vitoria-gasteiz.org**

MAULE. 2007KO MASKARADAK

goizeko 10:00etan, barrikaden hasiera ordua / arratsaldeko 16:00etan emanaldi nagusiarena **otsailaren 3an: maule** **otsailaren 11an: atharratze** **otsailaren 18an: maule** **otsailaren 25ean: ainharbe** **martxoaren 4an: gamere** **martxoaren 11an: barkoxe** **martxoaren 25ean: arrokiaga** **apirilaren 1ean: urdinbarbe** **apirilaren 8an: hoki** **apirilaren 21-22: maule**



GEU laguntzailea: **GIZARTE EKINTZA Obra Social** Caja Vital Vital Kutxa

GAZTEAK EKINEAN PROGRAMAREN AURKEZPENA

otsailak 23, ostirala

topagunea euskara elkarten federazioaren eskutik. bilbo, euskararen etxean (san inazio, aiaz plaza 1, 2.) 9:00-14:00

europar batasuneko parlamentuak eta batzordeak hartutako erabakiaren ondorioz sortu da 'gazteak ekinean' programa, eta 2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean irauko du. programa honek gazteen hezkuntza ez formala lantzen du europar batasunaren esparruan, eta bertako gazteen arteko parte-hartze aktiboa eta lankidetzat sustatzea du helburu. gazteen inizatiba ludikoak sustatzearen bost aukera eskaintzen ditu: elkartrukeak, gazteen ekintzak gauzatzea eta boluntarioria, besteak beste.

izena-ematea: otsailaren 21 baino lehen
prestakuntza@topagunea.com / 944751618

www.topagunea.org

ZIGOITIA ARETOA

TEATRO TRAPERO DEL RÍO. 'GAUR JAIA!'

animazio eta musika ikuskizuna, lagun orori zuzendua, baina batez ere umei. inauterietarako egokia oso.

otsailak 17, larunbata, 18:00 - 19:15

sarrerak: 2 euro (haurrak); 3 euro (gazteak, 14-21 & eta jubilatuak), 5 euro (helduak);
bengolarra 1, ondategi / 945464400

KUTXITRIL ATENEOA. 1. URTEURRENA

otsailak 24

"Dagoeneko urtebete bete da Aitzogile kaleko 99 zenbakian aspaldidanik hutsik zegoen lokala okupatu eta KUTXITRIL ATENEOA sortu genuenetik. Hasierako aste haietako erronka lokala txukuntzea eta garbitzea izan bazen ere, gerora asmo handiago bat abian jarri genuen, hots, espekulazioaren atzaparretatik askatu berri genuen esparru hori auzoko talde, lagun, eragile, zein kolektiboentzako topagune eta bilgune bihurtzea, hausnarketarako gune bat sortzea, eta bertatik ekimen politiko, kultural eta sozialak bideratzea. Urte labur honetan, beraz, hamaika solasaldi, jardunaldi, tailer, bideo emanaldi, kontzertu, eztabaida, jai, eta abarreak ospatu ditugu bertan, halaber, auzoan lanean ari diren hainbat taldek ere euren bilera gune bilakatu du esparru hau.

Hori dela eta, datorren OTSAILAREN 24AN URTEURREN FESTA ospatuko dugu."

Besteak beste, LOS FONTANE surf-rock talde gasteiztarraren kontzertua izango da; jatekoa eta edatekoa ere ez da faltako".

ERAKUSKETA


MENDEZ MENDE.

INES GLZ DE ZARATE

zeramika garaikidea

otsailak 17 bitartera

ferretería marañon arte-
espazio kafetegia. gasteiz



KULTURika`07

Kultur ekintzak gure jardunaren zati garrantzitsuak dira. Izan ere, edozein hizkuntzak testuinguru batean, gizarte batean, du zentzia. Hizkuntza bizirik dagoen zerbait da. Hori dela eta, euskara ikasten duen ikasleak, hizkuntza ikasteaz batera, mundua ulertzeko era bat, kultura bat ere bereganatzen du.

Hori horrela izanik, urtean zehar kultur eskaintza zabalago antolatzen dugu gure euskaltegietan zein hiriko beste gune batzuetan. Izaera askotako kultur ekitaldiak izan ohi dira; izan ere, kulturaren ikuspegitik, ahalik eta hartzaile gehienek gustuak aintzat hartzen dituzten ekintzak dira gure kultur programa osatzen dutenak: erakusketak, musika-kontzertuak, antzerki-saioak, hitzaldiak, jaialdiak, zinemaldiak, txangoak, tailerrak...

MUSika KALE-KANTOIETAN

KULTURika`07ko ekimenen barruan kokatu behar dugu egitasmo hau. Badaramatzagu urte batzuk otsaila inguruan kontzertu desberdinak antolatzen. Helburuak, eskenatokia, eta taldeak aldatu egin izan ditugu urte batetik bestera. Aurten, ordea, lan taldean tarte berezia eskaini diogu puntu horiek aztertzei eta hizketaldi luzeen emaitza dugu MUSika kale kantoietan egitasmoa.

Egitasmo honek bi helburu bete nahi ditu: batetik, euskaltegietako ikasleak ikasgeleatetik atera eta lagun giroan euskal musikara hurbiltzea. Bestetik, Gasteizen euskal kulturari bere txokoa eskaini ohi dioten tabernetan bat egin, eta bertara hurbiltzeko joera dutenei gure ekarpena egitea, eta aldi berean IKA ezagutaraztea.

Egitasmo honi oihartzun zabalagoa emateko, Gasteizen euskal musikako nobedadeak uhinetan barrena zabaltzen auzoan diren 3KORTXEAKO -Hala Bedi irrati euskarazko musika saioa- kideekin harremanetan jarri ginen. Ideia gustatu eta elkarrekin jarri genuen martxan proiektu hau.

Kontzertuak Gasteizko Alde Zaharreko kantoietako tabernetan izango dira: Parral tabernan, Gora tabernan eta Hala Bedi tabernan. Guztiak ere otsailaren bigarren astean. Lehendabiziko saialdi hau arrakastatsua izatea espero dugu eta datorren urtean 2. edizioa etortzea. HALA BEDI.



EGITARAUA:

otsailaren 6an, asteartea, Parral tabernan, 20:30ean
EZINEAN

otsailaren 8an, osteguna, Gora tabernan, 20:30ean
KARIDADEKO BENTA+DJ BULL

otsailaren 10ean, larunbata, Hala Bedi tabernan, 20:30ean
TXUMA MURUGARREN+DJ 3KORTXEA

Eskola publiko eta euskalduna Gasteizko alde zaharrean

[iban zaldua*]

Datorren ikasturtea, 2007-2008koa, une garrantzitsua izango da Gasteizko Alde Zahararentzat, antzinatik datorren eskakizun bat gauzatzen hasiko delako. Bai, datorren ikasturtean Alde Zaharreko eskolan, Ramón Bajo zentroan, haur hezkuntza guztia (bi eta bost urte bitarteko umeena) euskaraz eskainiko da bakarrik eta osoki, eta, halaber, euskarazko adarraren ibilbidea hasiko da lehen hezkuntzan (sei eta hamaika urte bitartean), lehenengo kurtsoko D ereduko talde batekin; aurrerapauso inportantea, beraz, Atik D eredurako igarobidean murgilduta dagoen ikastetxe batentzat. Horrek esan nahi du sei urte barru zentro horretako hizkuntza nagusia euskara izango dela, hots, D ereduko lerro bakar bat eskainiko duela. Eskola publiko guztiz euskalduna izango dugu Gasteizko Alde Zaharrean, historian lehendabiziko aldiz. Aurrematrikulazio kanpaina gainean daukagu, eta hau guztia gogoratzea funtsezkoa iruditzen zait.

Ramón Bajo ikastetxea euskalduntzeko errebindikazioa, kultur elkarté eta partidu politiko zenbaitek temati proposatutakoa, aspaldikoa zen auzoan. Urteetan zehar A ereduari eutsi izanaren ondorioak argi zeuden: eskolatik ihes egin zuten auzokide autoktono ez ijitoen seme-alabek, euskarazko ereduak eskaintzen zituzten inguruko eta are urruneko eskoletara abiatuz, eta auzoan ugariak (baina inola ere ez gehiengoa) diren etorkinen eta ijitoen seme-alabak bihurtu ziren, denborarekin, zentroko ikaslegoaren gehiengo; horrek,




ezbairik gabe, eskolaren ghetizazioa eragin zuen (badakit hitz hauek erabiltzea ez zaigula batere gustatzen, halako gauzak ez direla gure ingurune garatu eta postmodernoa gertatzen, Jainkoak libra gaitzala, baina gauzei dagokien izena eman behar zaie: Ramón Bajo ikastetxea ghetto bat izan da urte askotan zehar).

Egoera hori duela urte batzuk hasi zen aldatzen, euskara hutsezko lerro baten sorrerarekin haur hezkuntzan eta, ondoren, eskolaren eredu osoa aldatzeko ekimenaren hasierarekin, Atik Dra hain zuzen ere. Alde batetik, tamala begitantzen zitzaigun umeak auzotik urrun eraman behar izate hori, oinez edo autobusez, umeak ohetik altxatuz goizean goiz eta abar, D ereduak eskaintzen zuen eskola publiko bat aurkitzeko, auzoan bertan zentro bat izanik. Eta, bestetik, erabat kritikagarria iruditzen zitzaigun etorkinen seme-alabak eta A ereduak berdintzen zituen ekuazioa, kontzienteki edo inkontzienteki zenbaitek defendatu dutena (eta defendatzen jarraitzen dutena) gure hezkun-

tza ingurunean: argi dago Euskal Herrian (eta batez ere Euskal Erkidego Autonomoan) "gizarte-integraziorako" bideetako bat euskara bereganatzea dela, eta ondo dakigu hezkuntza sistemak ez duela hori bermatzen ez A ez B ereduaren bitartez, baizik eta -gehien jota- Dren bitartez; beraz, zergatik ez diegu aukera hori eskainiko etorkinen seme-alabei? Izan ere, mito bat da etorkinen familiek A ereduak "hautatzen" dutela, nagusiki: aukera benetan eskaintzen zaienean, eta azaltzen zaienean zergatik D ereduak hautatzen duten euskal jatorriko familia gehienek, etorkinek ere ez dute zalantzarik egiten, eta umeak D ereduaren integratzen dituzte naturaltasun osoz.

Hori da, behintzat, Alde Zaharreko gure eskolan ikusi ahal izan duguna, eta uste dut datu zinez pozgarria dela. Horren pozgarria ez dena eredu aldaketa horrek auzoko familia autoktonoetan izan duen oihartzun eskasa izan da, matrikulazio kopurua hazi den arren. Esan bezala, eskolatzeari dauden umeen gehiengoa, Alde Zaharrean, euskal >>



proiektu ilusionagarri eta integratzaile bati ekin diogula uste dugu, ghettoa apurtu nahi duen proiektu bat alegia, euskararen aldeko taldeen aspaldiko errebindikazio bati erantzuten diona gainera

Radio Vitoriari, Gasteizek bost axola

[diego castañares*] (07-01-17)

Bai, hala da. Radio Vitoriaren irizpideen arabera, euskaraz jakitea ez da ezinbestekoa; euskara meritua da, ingelesa edo frantsesa diren bezala. Eskerrak eman beharko dizkiegu hala ere, euskarari emandako puntuak (20) ingelesari eta frantsesari (10na) emandakoak baino gehiago direlako... ñabar-dura hori tartean ez balitz, pentsatuko genuke UPNren gobernuak ezarritako oinarriak direla.

Hori bai; gaztelaniaz jakitea ezinbestekoa da, noski. Hor ez dago puntu gehiago ala gutxiago. Gaztelaniaz ez dakienak aurkezteko aukerarik ere ez du. (nik atal hori kenduko nuke testutik. Gaztelaniazko irratia da R.V. eta defentsarako oso helduleku ona ematen zaie hori esanda).

Radio Vitoriak (irradi publikoa eta Eusko Jaurlearitzaren menpekoa) euskaraz jardun nahi duten gasteiztarren hizkuntza esku-bideak bermatzeko egiten duen ahalegina, azpimarragarria da: zero. Ez dio batere ardurarik. Bost axola. Izan ere, lanpostua esku-ratzen duenak euskaraz ez badaki, bere bitartez Radio Vitorian hitz egin genezakeen euskaldunok, gaztelaniaz egin beharko dugu halaberharrez. Bere lankideek ere berdin.

Hortaz, euskarak Radio Vitoriaren infor-matiboetan jai izaten jarraituko du. Irratian horretan hitz egingo dutenek (politikoak, sindikalistak, enpresa gizonak, artistak, kirolariak, kultur elkarteetako kideak, eta abar...), gaztelaniaz hitz egin beharko dute, halaberharrez, Gasteizen irudi erdaldun elebakarra indartuz. Alegia, hiriaren eta lurraldearen irudi desitxuratua emanez, gero eta gehiago baikara euskaraz hitz egiten dugunak. Gero eta gehiago gara, gaztelaniara itzuli beharrik gabe Iruña-Veleiako testuak ulertzen ditugunak●

(*arabako aralarren antolaketa arduraduna)

jatorriko familietakoak dira, baina egoera hori ez da oraindik islatzen eskolan: ume autoktono ez ijitoen matrikulazioa, hazi den arren, ez da auzoko portzen-taietara hurbiltzen ere, oraingoz behintzat.

Eskolaren eskaintza, ordea, erakargarria da. Eraikina berria da, zabala, kalitatezkoa, instalazio onekin, egoki hornitua. Auzokide-entzat gertu dago, paseo labur bat da bertaraino; taldeak txikiak dira, eta gurasoen eta irakasleen arteko kontaktua, egunerokoa eta hurbila; eskola orduak amaitu ondoren, umeak kanpoan elkar-tzen dira, eta haien arteko harremanak estutzen dituzte, auzotik atera gabe. Eskola ordutegitik kanpo -baina eskola-rekin harremanetan- umeentzako zerbitzu eta ekintzen sare oso bat daukagu: kirol jarduerak, antzerkia, Landatxoko ludoteka, euskal dantzak Gasteiz Txiki lokaletan... Zentroko zuzendaritza eta Gurasoen Elkarteak zinez inplikaturik daude eskolaren kalitatearen aldeko apustuan, eta horretarako zenbait baliabide garatzen ari gara beste erakunde eta talde batzuekin batera: gelako ikerkuntza/ekintza proiektua Mondragon Unibertsitateko adituekin, Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko Irakasle Eskolako kulturarte-kotasun eta komunikazio-teknolo-gia proiektua, elkarbizitzarako formakuntza Berritzegunean... Eskola-komunitate guztiaren partehartzea bultzatzen saiatzen ari gara, gainera: ikasleak, irakasleak, gurasoak eta baita auzoko bizilagunak ere; bertan Alde Zaharreko zenbait agentek laguntzen digute horretan, hala nola Sareguneak, Auzokideen Elkartek, AZAok...

Proiektu ilusionagarri eta integratzaile bati ekin diogula uste dugu, ghettoa apurtu nahi

duen proiektu bat alegia, euskararen aldeko taldeen aspaldiko errebindikazio bati erantzuten diona gainera. Baina, paradoxikoki, "integrazio" hori bakarrik alde batekoa izateko arriskuan dago: etorkinek, esan bezala, naturaltasun osoz onartu dute beren seme-alabek euskaraz ikastea gure gizartean txertatzeko bide gisa, baina ez dute agian topatuko norekin "integratu" ikasgelan. Rikardo Arregik Diario de Noticias-eko bere "Paradoxa postmodernoa" zutabearen idatzi bezala (2007-I-19), "Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestaziora 4x4 erosi berrian joatea erabat arrunta da, eta afalostean etxe espekulazioaren aurka sutsu hitz egin duena hurrengo egunean agentzia batera sartuko da lasai asko erabakitzeke zein kostaldetan erosi bigarren etxea"; segidan arazorik gabe gehi zezakeen, esaterako, esaldi hau (edo antzeko bat): ahoan etorkinen eta eskola publikoaren aldeko aldarrikapen adoretuak erabili ohi dituzten batzuek ez dute kontraesanik ikusten haien seme-alabak urruneko eskoletara bidaltzearekin, etorkinekin ez nahasteko alegia.

Izan ere, etorkinen seme-alabak bertako gurasoen seme-alabekin ez nahastea bezain tristea iruditzen zait kontrakoa, haurrak batere etorkinik jasotzen ez duten eskoletan matrikulatzea. Gauza bat bestea bezain irrealia baita: gure gizartea, halaberharrez, gizarte multikulturala bihurtzen ari da. Eta gure seme-alabei gizarte berri horretan bizitzen ikasteko aukera eman beharko genieke, hasieratik. Gure auzoan bertan. Eta euskaraz●

(*idazlea eta alde zaharreko ikastetxe-ko gurasoen elkarteko kidea)

TOTI MARTINEZ DE LEZEA

“Gertuko istorioak kontatzea gustuko dut”



Euskal Herriko historia ezagutzeko parada amaigabea eskaintzen digu liburu bat argitaratzen duen bakoitzean. Toti Martínez de Lezeak (Gasteiz, 1949) irakurle askoren interesa pizten du lan bakoitzarekin. Azken urteotan liburu ugari argitaratu ditu (iaz, La Brecha, Sorginak, La Herbolera, El señor de la guerra) eta urte berri honetarako gutxienez hiru egitasmo ditu buruan. Eleberri bakoitzarekin historiaren beste aldea ezagutarazten die irakurleei; arrakasta handiz, gainera.

TOTI MARTINEZ DE LEZEA

t. edurne begiristain

Nondik datorkizu historiarekiko zaletasun hori?

Gure aitak izugarri maite zuen historia, eta gure etxean historiari buruzko liburu ugari zegoen. Ez dakit... bidaia asko egin nituen, gauza asko ikusi nituen, eta hortik etorri zitzaidan historiarekiko zaletasuna.

Idazteari ekin baino lehen gidoilari, itzultzaile, eta Kukubiltxo taldeko sortzaile izan zinen. Nolakoa izan zen idazle mundurako jauzia?

Hamar urte dira barruan idazteko gogoa piztu zitzaidala... Beti kontalari ona izan naiz eta, nire ustez, eleberriak idaztea antzeko lana da. Gainera, eleberri historikoak beti gustatu zaizkit eta asko irakurri ditut, baina gure herriari buruz oso eleberri gutxi egon dira beti, beraz, idazten hasi nintzen betidanik irakurri nahi izan nuena.

1998an idazteari ekin zenionetik batez beste bi liburu argitaratu dituzu urtean, arrakasta handiz gainera... Zein da arrakastaren gakoa zure ustez?

Pentsatu nahiko nuke izango dela hain txarto idazten ez dudalako!! Baina, halaber, nire antzera, eleberri historikoak gustuko dituen jende asko dagoelako eta nire idazteko modua erraza delako izango da... Baina, egia esanda, ez dakit zein den gakoa, benetan.

Arrakastaren gakoetako bat izan al daiteke ez duzula garaileen ikuspuntutik idazten, alegia, historiaren beste bertsioa ezagutarazten saiatzen zarela, eta hori irakurleak estimatzen duela.

Baliteke hori ere izatea, hots, gertuko istorioak kontatzea gustuko dudala, ezagutu dezakegun jendearen istorioak



a. laura garcia

kontatzen ditudala. Izan ere, gutako nortzuk gara errege edota aita santuen oinordeko? Historiako "galtzaileak" ere hor daude, haien inguruan kronista batek ere lerrorik idatzi ez zuenak, haien izenak ere ezagutzen ez ditugunak,... herri xehea, hitz batean.

Hortaz, jendea hemengo eleberri historikoak irakurtzeko irrikitan zegoela uste duzu?

Nire ustez, gure historiak jakinmina izatea bainoago, kuriositate kontu bat da. Eta horretarako, hobe da saio historiko bat irakurtzea eleberri bat baino. Alta, ez da lan erraza historiari buruzko liburu mardul bat irakurtzea, eta samurragoa izan daiteke gaiari buruz zerbait jakiteko eleberri bat irakurtzea, betiere historiari dagokion zatiak errealitatearekin bat egiten badu, noski.

Eleberri historiko bat sortzeko prozesuak bestelako eleberri batzuek behar ez duten dokumentazio lan bat eskatzen du. Zailagoa da, hortaz?

Baliteke. Argi daukadana da, eleberri historikoa idazteko gai dena bestelako genero batean idazteko gai dela. Kontrakoa, ordea, zailagoa izaten da, une historiko batez asko jakitea ez baita nahikoa, xehetasun asko ere ezagutu behar direlako ezerk karrankatu ez dezan -garaiko elikadura, janzkera, sinesmenak, ohiturak, egoera sozial eta politikoak-. Urte asko behar dira Historiara gerturatze-

ko, Historiaz irakurtzeko eta harenganako interesa pizteko.

Literatura-historia binomioan, literaturak historiaren mesedetan egon behar du ala alderantziz?

Kontua ez da bata bestearen mesedetan egotea. Kontua da historia eleberriarentzat oinarri izatea, ahaztu barik eleberri baten aurrean gaudela, eta ez saiakera baten aurrean. Hau da, kontua ez da dokumentatutako pertsonaia historikoei buruz hitz egitea, edota biografia bat eleberri moduan kontatzea, baizik eta ekintza bat dokumentatutako garai historiko batean kokatzea. Esaterako, 'Los hijos de Ogaiz' eleberriko pertsonaiei gertatzen zaiena fikzioa da %100ean, baina Lizarra-Estella existitzen zen, izurrite beltza egon, egon zen, baita juduen erreketak ere, erregerik ez egotea, eta herriaren altxamenduak ere..., eta gertakari horiek guztiek nire pertsonaietan eragina dute. **Euskal Herriko historian zein garaik harritzen zaitu gehien?**

Harritu, harritu... Gure herriko historia gazte-gaztetatik ezagutzen dut, garai batzuk beste batzuk baino hobeto, eta ez nau ezerk harritzen. Baina, beti ditut galdera batzuk buruan, esaterako: Zer gertatuko zatekeen Santxo III. Nagusiak ez balu Nafarroako erreinua bere semeen artean banatu izan? Gure historia desberdina izango ote, ez jauntxoek, ez ahaide nagusiek, ez balute euren

burua Gaztelako eta Frantziako errege-erreginen aurrean saltzen utzi?

Historia ondo ikertuta, gure herriko gatazkaren inguruan beste ikuspegi bat geneukake?

Argi dago Euskal Herria ez zela herri erraza izan menderatu nahi izan zutenentzat: erromatarrak, arabiarak, frankoak, bisigodoak... Eta, orobat, ez da erraza izan azkenik konkistatzea lortu zutenentzat, eta horren lekuko da euskarak eta euskal izaerak historiaren gorabeheren aurrean biziraun dutela. Haatik, ez da erabat egia zenbaitzuek saldu nahi izan diguten ideia, hots, gurea aberri batua izan dela eta atzerritarrek menderatu dutela. Izan ere, sarritan, bereziki Erdi Arotik aurrera, euskaldunak elkarren aurka borrokatu ziren, eta hiru mendetan izandako bandogerrek odolez tindatu zuten herri hau; euskal herritarrak izan ziren euren bizilagunak jazarri zituztenak sorgin ehizak herrietan hasi zirenean; arabarrak, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak izan ziren Nafarroara indarrez sartu zirenak 1512an Albako dukearen agindupean...

DI-DA

- Amets bat? Ez naiz pertsona ameslari bat.
- Amesgaizto bat? Ere ez.
- Zer egin ohi duzu denbora librean duzunean? Irakurtzen dut.
- Gasteiz ala Larrabetzu, zein duzu gustukoago? Biak, arrazoi desberdinengatik.
- Liburu bat? Dumasen 'Margot Erregina', adibidez.
- Idazle bat? Mmmm... hainbeste dira...
- Telebista saio bat? Telebista ez dut asko ikusten.
- Musika talde gogoko bat? Benito Lertxundi eta askoz gehiago!
- Gustuko duzun janari bat? Edozein, ondo egina badago.
- Oporrak non eta zertarako? Batzuetan, bi edo hiru egun, zerbait interesgarria ikusteko.
- Barre egin zenuen azken aldia? Askotan egiten dut barre.
- Eta negar egin zenuen azken aldia? Ez dut gogoratzen.



GERTU-GERTUTIK

Gasteizen jaio zinen, eta orain Larrabetzun bizi zara. Nola egin zenuen bide hori?

Nire bikotea Bilbokoa da, eta Alemanian elkar ezagutu genuen. Ezkondu eta gero, Frantziara bizitzera joan ginen, eta Euskal Herrira bueltatu ginenean bizitzeko herri txiki eta euskaldun bat bilatu eta Larrabetzu topatu genuen. Orain dela 33 urte bizi gara hemen eta oso pozik gaude, gure seme-alabak eta iloba euskaldunak dira eta guk euskaraz egiten dugu!!!

Orain dela 57 urte jaio zinen Gasteizen. Nola gogoratzen duzu?

Txikiagoa! Gure familia erdialdean bizi zen, ama eta neba bat oraindik Foru kalean bizi dira, eta toki hori ez da asko aldatu. Maiz joaten naiz Gasteizera, eta beti bezala aurkitzen ditut Dato kalea, Posta kalea, Alde Zaharra...

Alemanian, Frantzian eta Erresuma Batuan ibili zinen. Zer dela eta joan zinen?

Gaur egun eskola-porrotzat hartzen den kasu horietako bat izan nintzen, hau da, nire irakasleen arabera ez nuen ikasteko balio. Orduan, nire gurasoek erabaki zuten atzerrira bidaltzea hizkuntzak ikasteko. Itzultzaile-interprete tituluak atera nituen eta erakutsi nuen ez nintzela alferria, ezta ergela ere. Hortaz, eskola-porrota ez zen bereziki nirea izan, niri irakasten jakin ez zutenena baizik.

Literatura behin betiko bokaziotzat hartu duzu edo berriro beste arlo batera jauzi egiteko asmoa duzu?

Nork daki! Egia esateko, ez diot ezerri aterik ixten, baina zahartzen ari naiz eta literatura oso lan atsegina da, oso lasaia. Nire nagusia neu naiz, bakarrik lan egiten dut, ordutegirik gabe, eperik gabe... eta nahi dudanean hitza dut!

Aurreraterik ba al duzu zein izango den zure hurrengo lana? Zertan ari zara orain?

Aurtengorako hiru proiektu ditut. Ez dakit denborarik izango dudan hirurak egiteko, baina saiatuko naiz. Lehena, 'El verdugo de Dios'-en bigarren zatiarekin jarraitzea da. Bigarrena, euskarazko eleberri bat izango da, itzulpena izango da baina gaztelaniazko jatorrizko eleberria baino lehen agertuko da. Eta hirugarren egitasmoa gazteentzako eleberri bat da. Hasi naiz lehen lanarekin, eta kontatuko dizuet beste biek nola moldatzen naizen!●

[ainhoa arriaga & naroa cuesta]

HAU OTE DA ETXEBIZITZA ESKUBIDEA?

Etxebizitzaren egoeraren diagnostikoa oso urrun dago izan beharko litzatekeenatik. Espekulazioak aurrera darrai eta etxebizitza hutsen kopurua ez da hazi besterik egiten. Izan ere, adituen arabera, Gasteizen bakarrik, 10.050 pisu huts aurki ditzakegu eta hego Euskal Herriko etxebizitzek batez beste 330.000 euro inguru balio dute. Gauzak horrela, 1.300 euroko soldata duen langile batek 21 urte beharko lituzke, bere soldata osoa ematen, pisua ordaintzeko. Panorama ikusita, Gasteizko gazteek dituzten usteak jasotzera irten gara kalera:

**Zein da zure etxebizitza egoera?
Zein da zure ustez Gasteizen dagoen etxebizitza egoera? Zergatik?
Konponbiderik?**



Borja Moraza, elektrikaria, 23 urte

- 1.- Ni nire gurasoen etxean bizi naiz oraindik.
- 2.- Nire ustez pisuak garestiegiak dira, batez ere jasotzen ditugun soldatekin alderatzen baditugu, metro karratuaren prezioa oso-oso garesti dago. Ondo legoke jakitea nondik datorkigun egoera hau konponbidea errazago aurkitzeko. Gainera, ez diote eraikitzeari uzten.
- 3.- Finantza laguntza gehiago udalaren eskutik.



Maitane Grisaleña, arkitektura ikaslea, 21 urte

- 1.- Etxetik kanpo bizi naiz astean zehar, Burgosen ikasten ari naizelako. Alokairuan bizi naiz beste ikasle batzuekin, gurasoek ordaintzen didate. Asteburuetan hemen bizi naiz, gurasoekin.
- 2.- Nire ustez egoera txarra da batez ere gazteentzako. Pisu bat ordaintzea ezinezkoa zaie. Pisuak izugarri garestiak dira eta jende gehiegi dago Etxebidek zozketan ateratzen dituen pisuen zain. Oso zaila da pisu horietako bat lortzea.
- 3.- Konponbidea? Ba ez dakit, zaila da. Pisu hutsik ez egotea batez ere, eta behingoz, alkatea honen aurka zerbait egiten saiatzea.



Karlos Moreno, elektrikaria, 27 urte

- 1.- Gurasoekin bizi naiz, euren etxean. Hala ere, babestutako pisuetako zerrendetan apuntatuta nago, pisu merkeago baterako aukera izateko esperoan.
- 2.- Orokorrean oso txarra delakoan nago. Pisu libreak, oso garestiak dira eta edozein langilerentzat ia ezinezkoa da erostea. Aberatsenek eta bizitza osoan hipotekatuta biziko direnek bakarrik izan dezakete aukera hori. Bestalde, beste lekuetan baino babestutako pisu gehiago zozketatzen direlakoan nago, eta pisu hauek nahiko ondo daudela uste dut.
- 3.- Lurzoru gehiago egon beharko litzateke eta gainera dohainik. Horretaz aparte, lursailen espekulazioarekin amaitzea ezinbestekoa da, pisu hutsekin amaitzea bezala eta eraikitzaileen irabaziak kontrolatzea bezala.

DESIO

[patxi zubizarreta]



Ez naiz txantxetan ari. Mesedez, har itzazu luma eta papera, eta denbora apur bat artikulu-test hau irakurtzeko eta erantzuteko. Baina ezertan hasi aurretik, izan konfiantza, egizu desio bat. Orain bai, orain irakurri lehen atala: Gehiegi pentsatu gabe, ordena itzazu bost animalia hauek: behia, tigrea, ardia, zaldia eta zerria. Bigarrenik, ondoko bost kolore hauei egokitu ezagutzen duzun pertsona baten izena, azkar: horia, laranja, gorria, zuria eta berdea. Azkenik, idatz ezazu zure zenbakirik gogokoena, eta zein duzun asteko egunetan atsegina, arin.

Test hori nire posta elektronikora heldu zen, galderak Dalai Lamarenak omen ziren, eta hona hemen erantzunei dagozkien interpretazioak-eta, bide batez, norberaren lehentasunak. Lehenik, animalien sailkapenari buruzkoak: behiak lehia adierazi nahi du, tigreak harrotasuna, ardiak maitasuna, zaldiak familia eta zerriak dirua. Bigarrenik, koloreei buruzkoak: horiak inoiz ahantziko ez duzun norbait adierazi nahi du, laranja benetako adiskidea, gorriak benetan maite duzuna, zuriak zure arima bikia eta berdeak zure bizitzan beti oroitu duzuna. Hirugarrenik, zure zenbakia zein izan den, beste horrenbeste pertsonari bidali behar diozu mezua, eta, finean, zure desioa astegunik gogokoenean gertatuko da.

Txantxetan edo ez, mezu hauek zer pentsa eman dezakete. Erantzuten ari zaren bitartean atsedean hartzen duzu eta interpretazioek agian argitxoren bat ekarri dizute, baina mezuaren bigarren parteari onartezin irizten diozu: «Mezua 96 ordu baino bidali ezean, desio izan duzunaren kontrakoa gertatuko zaizu»; horrek zalantza eragiten dizu eta argi duzu ez diozula mezua inortxori ere bidaliko. Guztiarekin, mezuak uste baino zalantza sakonagoa piztu dizu: zein da zure desioa, zer desio duzu zuk? Eta ez naiz txantxetan ari●

XABIER ARAKISTAIN 'ARAKIS'

Montehermoso Kulturuneko zuzendari berria

*“Herri-administrazioak arte egitarauetan
sexuarekiko bazterketa egin ez dezan
lan egingo dugu aurrerantzean”*



Xabier Arakistain (Elgoibar, 1966), Arakis izen labur eta zuzenagatik ere ezaguna, Bilbotik Gasteiza etorri da Montehermoso Kulturunean Araceli de la Horrak utzi zuzendari lanaz arduratzeko.

t. josune velez de mendizabal a. edorta sanz

Hamarkada oso bat komisari independente aritu da Elgoibarren jaiotako zuzendari berria; orain ordea, administrazio publikoko zentro kulturalan jarraikortasunez aritzeak artearekiko duen filosofia garatzeko aukera emango diola aitortu du: "Momentu egokia iruditu zait hau beste aldea ezagutzeko". Artean egun dagoen elitismoa ekiditea, artean sexuarekiko dagoen bazterkeriari aurre egitea, eta artea genero ikuspuntutik lantzea dira Arakisek Gasteizen kultura artistikoari eman nahi dion ukitu berrirako ardatz nagusiak.

Lan berria, bizileku berria. Komisario independente izatetik kulturune publikoko zuzendaria izatera, Bilbotik Gasteiza. Zein da hasierako hilabete honetan hiriaz jaso duzun inpresioa?

Lanaz aldatzeko garaia zela prentsatu dut. Komisario independentea izanik zure proiektu propioak nahiz eta zuretzat interesgarriak izan daitezkeenak aurrera atera ditzakezu, baina ezin denboran edo leku zehatz batean modu iraunkorrean garatu. Ezberdina da ordea, kulturune batean aritzea non egitasmoak lasaiago gara ditzakezun eta jarraikortasuna ere izan dezaketen. Gasteiz hiriari dagokionez, eta balorazioa ikuspegi artistikotik eginez, munduko leku guztietan ematen den egoera ikusi dut, alegia, emakumea baztertua dagoela, hau da, erakusketa gunetara, beketara, laguntzetara heltzeko eta ekoizpen proiektuak jasotzeko

emakumeak ez daudela aukera berdintasunean. Duela hamar urte lanean hasi nintzenetik mantendu den arazoa da hau. Artean ematen den sexismoa konpondu gabe dagoen arazoa da. Eta bada garaia honi aurre egiteko.

Zure ibilbide profesionala oso lotuta dago hasieratik feminismoarekin. ARCO arte azokan ere 'Feminismo eta artea' izeneko adituen mahainguruak gidatu izan dituzu hiru urtez. Feminismoa al da zure lan ardatz nagusienetakoa?

Hiru urtetan izan naiz ARCO mahainguru horiek moderatzen. Adituek, Estatu espainoleko agenteek nahiz nazioartekoek eginiko eztabaidak artean sexuarekiko dagoen bazterketa aztertu eta ondorioztatu du. Hori dena txosten batean jaso genuen bere egunean eta bertatik adostu zen herri-administrazioei emakumeekiko berdintasuna eskatu behar zaiela. Eta guk laguntza eta aholkuak eman behar dizkiegu egoera hori behingoz konpontzeko. Kontuan hartu Arte Ederretako fakultatean lizentziatzen diren ikasleetatik %65 emakumeak direla; gainera hauen emaitzak gizonetzkoenak baino hobeak

dira. Hala ere, gerora, administrazio publikoek edota museoek programatzen dituzten egitarauetan kuota hauek ez daude. Emakumea bigarren maila

batean geratzen da. Hau ez da kasualitatea, arazo estrukturala baizik. Hortaz, pentsatzen dugu 2007 urtea emakumearen presentzia artean bermatzeko garaia dela.

Hortaz, emakumearen presentzia artean bermatzearen alde eta era berean, sexismoaren kontra lan egitea izango da Monterhermoson ezarriko duzun lan ildo berria?

Garai berri bat inauguratzen dugu Montehermoson eta garai hau egun bizi dugunaren oihartzuna da. Duela hamar urte ez zeuden gaur egun dauzkagun baliabideak, eta horregatik gaur egon badaudelako aprobetxatuko ditugu. Artea minuskulaz eta maiuskulaz, edota lehen ziren disziplina zurrinak

kolokan daude. Artean dagoen elitismoa ekiditu nahi dugu. Guk, administrazio publikoaren gestore garen neurrian artisten komunitateari zerbitzu on bat eskaini behar diogu, baita gizarte osoari ere. Horregatik, dagoeneko dauden sorkuntza-laguntzak bultzatzeaz gain ikerketa laguntzak sortuko ditugu. Izan ere, eta ikerketa laguntzei dagokienez, Estatu espainolean arte feministaren historiografiarik ez da egin. Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan ditugu erreferentzia gertuenak, baina horiek ezin ditugu ardatzat hartu gure kulturarekiko oso ezberdinak baitira. Estatu espainolean emakumeen ibilbide historikoa ezeztatua geratu da. Historiografia hori zor diegu emakumeei. Justizia soziala baita.

Laburbilduz, arte, kultura eta gizarte kontzeptuak ezinbestekotzat jotzen dituzu zure politika kulturalan, eta

erakusketa gunetara, beketara, laguntzetara heltzeko eta ekoizpen proiektuak jasotzeko emakumeak ez daude aukera berdintasunean



arakis

lanpetuta erabat, leku batetik bestera eta kazetari galderei bizitasunez erantzuten dabil arakis azkenaldi honetan, duela bi hilabete montehermosoko zuzendari izendatu zutenetik. gasteizen gustura aritzen dela onartzen du bilbotik hona etorri zenetik. "gasteiz dagoeneko ezagutzen nuen eta bertako artistekin ere erlazioa daukat. zineman masterra egin nuen hiri honetan, duela hamar urte izan zen". informazio zientziak ikasi zituen arakisek, zineman masterra, ikus-entzunezkoetan doktoretza eta arte ederretako departamentuan tesia egin. "nire ikasketak gizarte eremuan izan ziren baina arteari zuzenduak beti", azaldu du.

nongoa den galdetuta elgoibarren nerabatasuna bizi izanak markatu zuela onartzen du. "hala ere, aitaren lanagatik asko bidaiatu dugu betidanik, hortaz... nongoa naizen? buff. nik neuk ere asko bidaiatu dut... bilbon denbora gehien bizitzen eman dudana leku izateagatik agian hangoa ere senti naiteke..., baina londresera ere askotan noa... ze zaila horri erantzutea!", dio morez. munduko leku askotan mugitzeagatik ere euskara gutxi erabili izan duela onartu du. "baina berez euskaldun zaharra naiz, dena ulertzen dut eta amamarekin beti egiten dut euskaraz", nabarmendu du.



artisten komunitateari zerbitzu on bat eskaini behar diogu, baita gizarte osoari ere

hau dena genero ikuspegitik garatuta...

Ikuspegi feministak herri-administrazioetan ezartzea interesgarria iruditzen zait. Feminismoa, XX. mendean artea gehien eraldatu duen abangoardia dela kontuan hartu behar dugu. Ostean ordea, artea eta modaren arteko hartu-eman hori dela-bide, 90. hamarkadatik aurrera, justizia sozialaren gaia, horren barruan emakumearena, modatzat hartu eta pixkanaka baztertuz joaten da. Eta justizia soziala ezin da sekulan moda bat izan! XXI. mendean, ordea, nazioarteko mugimendu ugari artea ikuspegi feminis-tatik lantzeaz interesatzen dira berriro. Hala nola, Estocolmoko museo moder-noa, non zuzendariak akats-tzat hartu zuen bildumaren emakumeen lan eskasia. Ondorioz, museoko ondarea emakumeen lanak eskuratzeko erabili zuen. Beste adibide bat Brooklyn-eko museoa da. Bertan arte feministako departamentua irekitzen dihardute. Honetaz gain, Montehermoson artista lokal eta nazioartekoen elkarrizketa abiatu nahi dugu; guk eurek egiten dutena jakiteko eta eurek ere guk egiten duguna jakin dezaten.

Berritasunen artean, Monterhermosok abiatu nahi du aitzindaria litzatekeen hezkuntza egitasmoa, zertan datza?

Gizarteari arte garaikidea hurbildu nahi diogu hezkuntza egitasmo honekin. Hau erabat aitzindaria da. Kontua da XX. mendetik aurrera arte garaikidea

erabat konplikatzen dela eta ulertzeko ezagupen zehatzak eskatzen dituela, garapen honetan gizartearen zenbait belaunaldik arte garaikidea ulertzeko gaitasuna galtzen dutela. Guri interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zaigu jendeak arte garaikideak dakartzan zalantzak eta planteamenduak ulertzea. Horregatik ulertzen irakatsi nahi diegu. Oraindik goiz da proiektuaren nondik nora-koak azaltzeko, hastapenetan baikaude. Baina aurrerapen gisa bisita gidatu espezifikoen bitartez egingo dela esan dezaket, besteak beste.

Monterhermoso, Artium eta orain garapen fasean aurkeztu berri den KREA adierazpen zentroa. Elkarlanean ariko zarete la aipatu duzue. Zeintzuk izango dira bakoitzaren eskume-nak?

Uste dut norberak bere zereginak oso argi dituela. Gainera eremu kulturala izugarri handia da!! Gure

helburuak oso zehatzak dira, nahiz eta ekintza bateratuak egiteko asmoa ere badugun. Edozein modutan dela, gizarteari eskaintza hobea ematean datza gure funtsa. Oraindik goiz da honen inguruan hitz egiteko, hasi berriak gara eta!●



garai berri bat inaurguratzen dugu monterhermoson eta garai hau egun bizi dugunaren oihartzuna da



17 urteko neska alaia da Ane. Gasteiztar peto-pettoa da, eta aurten bukatuko ditu Batxilergoko bigarren mailako ikasketak Koldo Mitxelena Institutuan. Dena den, ez du erabaki aukeratuko duen bide zehatza

t. ainhoa arriaga&tnaroa cuesta

a. edorta sanz

Kariokak, mazak, malabareak... egitea du gustuko, eta diotenez, profesionala dirudi. Etorkizunean pertsonekin harreman zuzenean lan egitea gustatuko litzaioke, hala ere, ez du erabaki aukeratuko duen bide zehatza. Gainera, zaila egiten zaio hemendik bost urtera bere burua imajinatzea.

Duzun biziorik handiena?

Gauetan ateratzea, oso parrandazalea naiz.

Bertuterik?

Entzuten badakidala.

Akatsik?

Pertsona ezezagunekin "irekitzea" asko kostatzen zait.

Zure gorputzaren atalik politena?

Begiak, amak oso espresiboak direla esaten dit.

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Zoriontsu izatea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Nire ondoan dagoen jendeak ahoarekin zarata egiteak jaten daudenean.

GEU elkartearen eta aldizkariaren berririk?

Etxean harpidedunak gara duela bi urtetik hona.

Egunkari bat?

Gara.

Telebista saio bat?

Friends.

Beldurrik?

Armiarmak, ez zaizkit batere gustatzen.

Oporrak non eta norekin?

Nire lagunekin Italiara joango nintzateke.

Eta nora ez zinateke joango?

Leku guztiak dira onak ezagutuak izateko.

Gasteizko gaua non?

Alde zaharrean, batez ere, Kutxi kalean.

Nola ikusten duzu Alde Zaharrean aurrera eramaten ari diren "eraberritzea"?

Ezarri dituzten arrapalen guztiz aurka nago, gainera ez dute inolako funtziorik beteko.

Eta eguna?

Kalean. Ez naiz batere etxetiarra.

Liburu bat?

'Kutsidazu bidea, Ixabel' asko gustatu zitzaidan, baina, ez naiz oso irakurzalea.

Musika talderik gustukoena?

Extremoduro, Berri Txarrak..., etxean eta tabernetan entzun ohi ditut.

Zer deritzozu pirateriari?

CDak oso garesti daude, eta irtenbide bat da. Baina, musikarientzat arazo larria.

Zer da Gasteizek duen onena?

Jendea, oso giro ona duen hiria da.

Eta txarrena?

Bizi dugun egoera politikoa. Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?

Esfortzu handia egin beharko litzateke, zaila ikusten dut.


Iragana, gaur eguna ala etorkizuna?

Hobe da gaur egunean bizitzea, etorriko dena helduko baita, eta iragana jada pasatu delako.

Zer eskatzen du herriak?

Askatasuna●


Ane Gebara



“Arrazismoa eta matxismoa ezin ditut jasan, ezintasuna sentitzen dut”

BADATOR KORRIKA 15!

Martxoak 22-Apirilak 1, Karrantzatik Iruñera



korrika

AEK eta Korrika

Korrika AEK-k antolatutako ekitaldia da. Euskal Herri osoan egiten den euskararen aldeko ekitaldi bakarra. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau- eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. Jakina denez AEK Euskal Herri osoan aritzen den erakundea da, eta Korrika 15 honen bidez Nafarroako gau eskolak diruz lagundu nahi ditugu, baita bertan pairatzen dugun diru laguntzaren etengabeko murrizketari aurre egin ere.

AEK onura publikoko kultur elkarteak helduen euskalduntze eta alfabetatzean dihardu. Euskal Herri osoan 100dik gora ikasgutan milaka euskara ikasle ditu.

Baina hori ez da dena, Korrika ez da ekitaldi huts bat. 1980an Oñatitik Bilbora Euskal Herria zeharkatu zuen Korrika 1 antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuenetakoa da Korrika. Orduetik 14 Korrika eta mende laurden igaro dira, baina Korrikaren arrakastak bere horretan dirau.

Izan ere, 10 egunez, gau eta egun, gelditu gabe Euskal Herri osoa zeharkatzen duen lasterketa erraldoia ez da egunero ikusten. 2.100 kilometro baino gehiago korrituz, adin eta mota guztietako milaka pertsonak hartzen du parte. Korrikaren inguruan sortzen den mugimenduak Euskal Herriko jendarteak bere hizkuntza berreskuratzearen alde egiten duen apustuaren tamaina islatzen du.

Baina,aldi berean, Euskal Herriko gizartea astintzen duen gertakari bilakatu da bi urterik behin egiten den Korrika. Batetik bestera lasterketan parte hartzen duen jende kopuruak gora egiten du. Korrika ekitaldiaren antolaketan milaka lagun aritzen dira herriz herri eta auzoz auzo eratutako batzordeetan, eta kanpainak irauten duen bitartean ehunka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar antolatu ohi dira. Era berean, ezin aipatu gabe utzi komunikabideetan duen oihartzuna gero eta handiago dela.

Korrika 15 HELDU

Karrantzan hasi eta Iruñean amaituko da korrika 15. HELDU izango da korrika honen lelo nagusia. Baina, zeri heldu? Bada, herriari, hitzari, elkarlanari, euskarari eta lekukoari. Horiei guztiei helduko die Korrika 15ek martxoaren 22tik apirilaren 1era bitartean.


Euskaldunok euskaraz mintzatuz adierazten dugu geure euskaldun izaera, euskaraz hitz eginez egiten dugu Euskal Herria. Euskara da gure nortasun agiria, euskara da munduari hemen herri bat dagoela adierazteko oinarria. Horregatik diogu HELDU HERRIARI.

Bada garaia urteetako menderakuntza, jazartze eta zigorren ondorioz baztertua izan den euskarak bere esparrua berreskuratzeke. Euskarak Euskal Herri osoko hizkuntza izan behar du. Horretarako, konpromisoak behar ditugu, eta aurreko korrikaren mezuari jarraituz, konpromisoaren beharra eta balioa azpimarratu nahi ditu korrika 15ek, ez garelako hutsetik abiatzen. Horregatik diogu HELDU HITZARI.

Belaunaldiz belaunaldi kontra izan dituen legeei aurre eginez, euskararen aldeko konpromisoari heldu zioten euskaltzaleei esker dirau euskarak. Lagun horien konpromisoa eta elkarlanean aritzeko borondatea izan ziren euskarak, oztopo guztien aurka, gaur egun arte bizirik jarraitzeko euskarria. Horregatik diogu HELDU ELKARLANARI.

Korrika 15ek, beraz, euskara ikasi eta erabiltzea eskatzen digu euskal herritarroi, eremu berriak zabaldu eta elkarlanean aritzea. Eta alderdi, sindikatu, elkarte eta erakunde guztiei, euskara ukatzera datozen legeak eta jarduerak baztertu eta euskaraz bizi ahal izateko bideak eraikitzea. Horregatik diogu HELDU EUSKARARI.

Iraganeko kemenak eman du emaitzarik, baina oraindik asko daukagu egiteko. Orduko lanaren fruitua jaso dugunoi dagokigu orain lekukoa hartzea. Horregatik diogu HELDU LEKUKOARI.

**korrika.org**

**korrika 15ek
euskal emakumea
omenduko du**

Korrika



Korrika laguntzailea

Korrikak, ordea, laguntzaileak behar ditu abian jartzeko, horien laguntasuna ezinbestekoa baita korrikari ekiteko, aurten batik bat Nafarroako gau-eskola eta euskaltegiek pairatzen duten egoera ekonomiko tamalgarriari aurre egiteko. Euskal Herriko 300 komertzio baino gehiagotan beharpenak izateko aukera dauka korrika laguntzaile egiten den lagunak, 12 euroren truke.

**korrika 15,
karrantzatik
irünera: heldu**



**2.150 km
euskal herrian
zehar, martxoaren
22tik apirilaren
1era**

Omenaldia

Euskaraz hitz eginez egiten dugu Euskal Herria eta lan horretan euskal emakumeak izan duen garrantzia eta ezinbesteko papera goraiatu nahi ditu korrika 15ek. Urtetako menderakuntza, jazartze eta zigorrei aurre egiteko eta euskal kultura eta euskara, belaunaldiz belaunaldi, gorde eta transmititzeko, euskal emakumeek izan duten indarra, adorea eta balioa omendu nahi ditu korrika 15ek.

Omenaldi honek iraganeko, egungo eta etorkizuneko euskal emakume guztiak hartzen ditu, adin, esparru eta ideologia guztietakoak, ezagunak eta ezezagunak. Horregatik ez da omenaldi honetan aurpegi zehatzik erakutsi nahi izan, omendu nahi diren hainbat emakumek, gehienek, ez dutelako izen eta aurpegi ezagunik. Horrela, korrika 15ek EUSKAL EMAKUMEARI egingo dio ondo merezitako omenaldia, euskararen eta euskal kulturaren iraupen, berreskurapen eta etorkizunean izan eta izango duen paperagatik.

15

**korrika
laguntzaile
kanpaina abian
da, izan zaitez
laguntzaile**

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

Tl. 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER AIZPEOLEA

Harategia



FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☐ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☐ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA
ZERKABARREN KALEA, 18

01008 GASTEIZ

945 263 874

IRYSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otarkeoak



Zure arropa eta oinetakoak

www.sartudenda.com

Kubillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710



Ez dugu dicitu, ez dugu dicitu, ez dugu dicitu.

JANTOKI
BEGETARIANOA

SAN FRANCISCO XABIERKOASIN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.: 945 27 65 33

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

ARTEPAN

Artisau



Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

EYSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones Pinedo Jantziak

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ


Tfnoa.: 945 23 39 90



Eskaintza hau 07-01-07tik 07-02-28ra bitartean egongo da indarrean

Begiei begiratzea
merkea da oso

bonardi 35€
armazoiak




ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel 33.
Gasteiz



23. ZINEMASTEIA

EUSKAL ZINEMAREN ASTEA


Cortada, Giza Eskubideen Zinemaldia, Neff Jaialdia, Ingurumeneko Zinemaren Erakustaldia... Luzea da Gasteizen egiten diren zazpigarren artearen inguruko jaialdien zerrenda. Hurrengo hitzordua otsailaren amaieran izango da. Zinemasteia, Euskal Zinemaren Astea hemen dago.



jose luis ramos eta josemi beltran, zinemastearen koordinatzaileak; araceli de la horra, krea-ren zuzendaria; eta fernando l. castillo, neff-en zuzendaria



t. saioa fdz de arangiz a. e. sanz / zinemastea

Otsailaren 26tik martxoaren 3ra bitartean Euskal Zinemaren Astearen 23. edizioa gauzatuko da Gasteizen. Zinemaste honi esker, 2006 urtean euskal zinemagintzaren alorrean egindako lan guztiak ikusteko aukera izango dute ikusleek, film labur zein luzeak, alegia. Horrez gain, ikusgai egongo diren lanen egileekin egoteko aukera ere izango da zinemaldian. "Gure lurraldeko zinemak duen kalitatea eta interesa kontuan hartuta, gero eta gehiago merezi du astebeteko jardun hau egitea; gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko beste inon ez da halakorik", azaldu du Josemi Beltranek, Euskal Zinemaren Astearen koordinatzaileak.

Berrikuntza ugari

Jada 23 urte igaro dira lehenengo Euskal Zinemaren Astea ospatu zenetik. Denbora honetan asko izan dira zinemaldiak jasandako aldaketak, izan ere, aurten berrikuntzak egongo dira. Hemendik aurrera sortu berri den KREA-k Zinemastearen antolakuntzan parte hartuko du, horrela NEFF taldearekin elkarlanean hasiko da. Zinemastearen egitarauari dagokionez ere ildo berriak

topatuko ditu ikusleak. Batetik, hiriko aretoetan eskaintzen ez den programazioa ikusteko parada izango da, Gasteizko ikusleek film aukera zabalagoa izan dezaten. Horrez gain, hiriko aretoetan inoiz ikusi ez diren filmak egongo dira ikusgai, non dokumentalak zein telebistarako filmak ikusiko diren. Euskal zinemagileek 2006an estreinatu dituzten lan garrantzitsuenen aurkezpena ere egongo da aste honetan eta egile hauek bertan izango dira ikusleekin solas egiteko asmoz. Bestetik, aurreko aldietan baino film labur gehiago aurkeztuko dira eta hauek NEFF jaialdiak euskal film labur onenari ematen dion saria lortzeko egongo dira lehian. Azkenik, saio berezia eskainiko zaio Eusko Jaurlaritzak urtero antolatzen duen KIMUAK programari.

Euskarazko zinema eta dokumentalak

"2006 urtea bikaintzat jo daiteke euskal zinemagileentzat, egindako lanak arrakasta lortu baitu ikusleen artean, jaialdi zein komunikabideetan", diosku Josemik. Gauzak horrela, Gasteizko Euskal Zinemastearen 23. edizio honetan 22 film inguru ikusgai egongo dira, film luze zein laburren artean.

Hasteko, Kepa Sojo eta Iñaki Dorronsoro zinemagile arabarren operari arreta berezia eskainiko zaie aste honetan; El Síndrome de Svenson eta La Distancia filmei, hurrenez hurren. Horrez gain, euskaraz egindako zinemak ere garrantzia izango du. Izan ere, 'Aupa Etxebeste' lan arrakastatsuen ondoren, 'Kutsidazu bidea, Ixabel' eta 'Agian' eta 'Nomadak TX' musika-dokumentalak ikusteko parada izango da Zinemastean. Bestetik, Bernardo Atxagaren obra oinarritzat hartuta, Aizpea Goenagak zuzendutako 'Zeru Horiek' lana ere Gasteiza etorriko da berriro (azken

aldiz GEU elkarteak ekarri zuen, iazko azaroan, Montehermoso kulturuneran).


"Bestetik, errealitatera jo eta bertatik abiatuta istorioak kontatzeko bidea oparo dugu Euskadin ere eta hori dela bide, dokumentalen kopuruak gora egin du aurtengo edizioan", azaldu du Josemik. Horrela, Invierno en Bagdad, 'Txorixak galduta egozian', El



film laburrek eta haurrentzako filmek zinemastearen egitaraua osatuko dute. hurre, i esaterako, 'kristobal molon' edota 'betizu eta xangaduko misterioa' izenburuak eskainiko zaizkie



23. ZINEMASTEFA EUSKAL ZINEMAREN ASTEA



Productor (Elias Querejetaren erretratu) eta *Esta no es la vida privada de Javier Krahe* lanak aurkeztuko dira.

Film laburrek eta haurrentzako filmek Zinemastearen egitaraua osatuko dute. Hurrej esaterako, 'Kristobal Molon' edota 'Betizu eta Xangaduko Misterioa' izenburuak eskainiko zaizkie.

Omenaldia eta sariak

Azkenik, aurreko urteetan Txema Blasco aktoreak, Juanma Bajo Ulloa zuzendariak edo Bingen Mendizabal musikagileak jaso bezala, aurtien ere Arabako zinemagile bat omendua izango da, Euskal Zinemaren Asteak antolatzen duen 'Gutako bat' omenaldiari esker.

Omenaldiaz gain, hiru izango dira banatuko diren sariak: ikusleen botoen bidez aukeratuak izango diren film labur onenarentzako saria eta film luze onenarentzako saria eta epaimahai batek aukeratu duen euskal film labur onenari saria. Azken hau NEFF 2007 jaialdian banatuko da.

Emanaldien sarrerekin lortutako dirua Mendizabala Institutuko Ikus-entzunezkoen arloko ikasleei zuzendutako ekoizpen beka finantzatzeko erabiliko dira ●

noiz: 2007ko otsailak 26-martxoak 3 (astelehenetik larunbatera)

non: vital kutxa fundazioaren aretoan: bake kalea, 5 / dendaraba / gasteiz

ordutegia: emanaldiak

otsailak 26: 16:30, 19:00 (inaugurazioa) eta 22:00

otsailak 23-martxoak 2: 12:00, 16:30, 19:00 eta 22:00

martxoak 3: 16:30, 19:00 eta 22:00

martxoak 1 eta 2: haurrentzako emanaldiak euskaraz, 10:00etan

sarreraren salmenta: araba kulturala-ren bulegoan (foru pz / gasteiz). 3 euro / euro 1 vital kutxaren bezeroentzat

egitaraua

otsailak 26, astelehena

16:30. noticias de una guerra

19:00. inaugurazio emanaldia

22:00. la buena voz

otsailak 27, asteartea

12:00. zeru horiek (eusk. azpit.)

16:30. esto no es la vida privada de javier krahe

19:00. nomadak tx (eusk. azpit.)

22:00. segundo asalto

otsailak 28, asteazkena

12:00. txorixak galduta egozian (eusk. azpit.)

16:30. calle silencio

19:00. kutxidazu bidea, ixabel (eusk. azpit.)

22:00. locos por el sexo

martxoak 1, osteguna

10:00. haurrentzako emanaldia: betizu eta xangaduko misterioa (eusk.)

12:00. el productor

16:30. uno por ciento, esquizofrenia

19:00. el síndrome de svensson

22:00. laburmetraiak kimuak 2006

martxoak 2, ostirala

10:00. haurrentzako emanaldia: kristobal molon (eusk.)

12:00. mobbing

16:30. la zona

19:00. la distancia

22:00. la sombra de nadie

martxoak 3, larunbata

16:30. tras un largo silencio

19:00. itxiera emanaldia eta sari banaketa

22:00. itxiera emanaldia

KOKO RICO, eskultorea

“Ez daukat interes berezirik nire lorratza edonon uzteko”

Koko Ricoren (Gasteiz, 1965) azken lana Gasteizko Salburua auzoan ikusgai da dagoeneko. Hiriaren zabalkuntzak garai batean aerodromoa zena desagertzerantz bultzatu eta historiako pasarte gogoan mantentzeko asmoz eskultoreak bi abioiren hiri-eskulturarak ezarri ditu.



t. josune velez de mendizabal a. edorta sanz

Txikitatik hasi zen Koko Rico marrazten. "Marrazki klaseetara eramane ninduten gurasoek ondo egiten nuelako eta nik denbora-pasa moduan egiten nuen. Institutuan irakasle eta ikasleen irrimarrak egiten nituen batez ere. Orduan hasi nintzen Artē Ederrak edo Arkitektura karrerak egitea pentsatzen -azaldu du eskultore gasteiztarak-. Baina azken kurtsoa ez nuen gainditu eta hortaz, unibertsitatera ezin izan nintzen joan». Hamazazpi urterekin gurasoen etxean, ikasi gabe, egoteak zaila egiten duen edozein gazteren egoera ekiditu nahian Koko Arte eta Lanbide Eskolan matrikulatu zen. "Eskultura modalitatean apuntatu nintzen. Hala ere, estudiorik gabe ezin nuen diziplina hau erabat garatu eta horregatik etxean marrazten jarraitzen nuen", aitortu du. Hamazortzi urte zituela Arabako Diputazioak artistentzako beka ateratu zituen eta Koko aurkeztu zen. "Txostena nola egin ere ez nekien. Ideiarik ez nuen. Nire margoen 500 argazki gutunazal batean sartu eta ikertzen jarraitu nahi nuela aipatu nuen. Beka eman zidaten eta orduan hasi nintzen artista ibilbidea garatzen", dio.

Margolari lanetan hasi zenuen zure ibilbide artistikoa. Hala ere, osterako eskultura aukeratu eta egun diziplina horretan jarduten duzu. Zergatik eta nola eman zenuen jautzia?

Estudio edo lan aretorik gabe eskulturan jardutea ezinezkoa zitzaidan, horregatik marrazten nuen. Hemeretzi urterekin ordea, Lanzarotera joan nintzen eta bertan nire margoa garatzen jarraitu nuen. Harea, burnia eta material desberdinetako lan tresnak erabiltzen nituen margotzeko orduan. 10 edo 15 kiloko margo poteak erosten nituen lan egiteko eta askotan nire koadroek 7 zentrimetroko lodiera eta 90 kiloko pisua hartzen zuten. Orduan konturatu

nintzen objektuaren mundua interesatzen zitzaidala, hiru dimentsioak, alegia. Gasteiza bueltatzeko orduan artisten elkartean ezaguna izaten hasten naiz. Nire estiloak ez zeukan zerikusirik Eskolan aritu zirenenarekin eta nire ezaugarri propioak kontuan hartzen hasten dira.

Gasteizen lan egin eta bizitzea erabaki duzun artista zara. Zeintzuk izan ziren bertan geratzeko arrazoiak?

Garapen erabat normala bizi izan dut. Gaztea zarenean ezinegon handiago duzu eta askoz gehiago mugitzen zara. Hogei eta hogeita hamar urterekin Mexikon, Valentzian, Liverpool, Bartzelonan, Frantzian, Portugalen, Madrilan... eta abarretan izan nintzen. Gerora, ordea, egiten duzunarekin gozutzen jarraitzen duzu baina nahi duzuna erlajatuta eta lasaitasunean bizitzea da. Estatus txiki bat izatea lortu dut eta honek hainbat kontu ezberdinetan aritzea ahalbidetu dit. Hala nola, zinema eta antzerki arloetan aritu naiz, trofeoak egin izan ditut, kartelak diseinatu, publizitatea ere egin dut..., eta ez solik bizirauteko baizik eta kolaborazioak izugarri interesatzen zaizkidalako, alegia, oparoak erabat iruditzen zaizkit. 80. hamarkadan lagun askok Madrilerara bizitzera alde egin zuten, ni neu ere zorian egon nintzen baina azkenean Gasteizen geratzea erabaki nuen. Gasteiz oinarritzeko kanpaleku ona da lan egiteko. Nola egin lan, bestela, leku batean non inaugurazioak eta jaiak egunero dauden? Artean, beste lanbide askotan bezala, lan handia egin behar da, ordu asko sartu behar dira.

Gaur egungo Adierazpen Zentro berria, KREA, guztion ahotan da egun. Zer irizten diozu?

Gaur egun oso iritzi baikorra ez dut horretaz. Baina egia esateko denbora eman behar zaie

egingo dutenaz zentzuz hitz egin ahal izateko. Orain arte ikusi dugun bakarra marketin eta publizitate estrategia handiak besterik ez dira izan. Ni ekimenak horrela aurkezteko moduarekin ez nator bat, agian zahartzen ari naiz eta garai berriak dira, ez dakit. Hala ere, orain arte (eta inaugurazio egunaz ari naiz batez ere) egin dutena dirua xahutzea dela iruditzen zait. Bestetik, artistentzako laguntzak eta lana garatzeko lekuak faltan dira aspaldian eta hortaz, beharrezkoak jotzen ditut Krea bezalako ekimenak. Bere egunean Katanga izeneko ekimen antzekoa gauzatu zen, baina instituzioetatik laguntzarik jaso ez izanaren ondorioz bertan behera geratu zen. Ideia ona da eta espero ni oker ibiltzea, baina iruditzen zait azken finean kanpoko artistentzako erakusleihoa izango dela. Izan ere, hain ondo geratzen da, Kubatik, edota, Noruega, edo Asiatik etorritako artisten izenak irakurtzea..., oso modan dago●



zenbait zertzelada

Koko Ricoren azken lana ikusgai da Salburuan. Aerodromoaren Ibilbidea atontzen duten bi hegazkinen eraketan aritu da azken hilabeteetan eskultore gasteiztarra. Etorkizun hurbileko egitasmoen inguruan galdetuta, "proiektu pertsonalagoak" dituela nabarmendu du. "Ez daukat interes berezirik nire lorratza edonon uzteko", aitortu du hiriko artelanei erreferentzia eginez.

Hala ere, Koko Ricoren lanak badira Gasteizko zenbait txokotan, baita Arabako hainbat herritan ere. Gasteizen, adibidez eta besteak beste, Florida parkean Wynton Marsalis jazz musikariaren eskala errealeko eskultura, Las Nieves liburategian kokaturiko gizaki buruhandien multzoarena edo Artium museoak bere bilduma iraunkorren jasotzen duen lana. Herriei dagokienez, Guardian eta Langraizen bidaiariari eskainitako eskulturak kokatu zituen 2003 eta 2004 urteren bitartean. "Maletak eta zapatak batean, eta bestean, poltsa, jakiak eta kapela antzeman daitezke. Denak dira bidaiariarekin erlasionaturiko objektuak -esaten du-. Eskulturek paratuko dituzun tokiekin zerikusirik izan behar dute. Ezin duzu ulertzen ez den gauza bat egin, han utzi eta horretaz ahaztu".

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua euskaraz bizi

PITILIN GORRI

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kurxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

geugasteiz.com

Bacalao Giraldo

Eguneko makailu gesaldua
Makailua eramateko prest
36 errezeta ezberdin

Bacalao Giraldo

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

HARROBI taldea

“Letra sakonak eta konprometituak aurkituko ditu gure entzuleak”

“Harrobia...
Harrien hobia...
gizakion jatorria historiaren lekuko...
Iragan, egun, datorkiguna...
Batzuetan zorrotz, besteetan azal-leuna... beti harri.
Nere herria, amaitu gabe dago... nere arima ere bai. MOAI”

t. maite lekue a. harrobi

HARROBI taldeak pop-rock musika doinuak aineratu berri ditu bere MOAI diskoan. Lehenengo diskoa da Moai, Pazkoa Irlan dauden eskulturetan oinarritutako irudia azaleratzen duen KDa. Disko honetan, Iñaki Akesolo, gitarra akustiko eta elektriko-jotzailea eta David Ibarra, ahotsa, dira taldearen oinarri eta 14 urtetan elkarrekin musika sortzen ibili ostean egindako lanaren ondorio da MOAI lan hau.

Urte andana hauetan hainbat musika taldetan izan dira biak ere, besteak beste eta guztietan sonatuena agian, Impresentables taldearekin egindakoak. Talde honen muinean izandako gorabehera batzuek gitarra akustikoarekin batera beste mota bateko musika bat egitea ahalbidetu zien. Kanta pare bat grabatzearen ideia otu zitzaizen hasiera batean eta poliki-poliki diskoaren grabazioan egindako garapena etorri zen. Bi kantatetik, hamaika abesti sortzeraino. Bi taldekide izatetik emakumezkoen ahots eta koruak lortzeraino, Bihotz Gorospe eta Saioa Gonzalezen kolaborazioari esker betiere. Diskoaren grabaketan emandako jauzi hau Babel Music Larrabetzuko diskoetxearen laguntza eta babesari esker lortu dute. Kolaborazioak ere ugariak bezain onak, batetik Carlos Velaso, jazz mundutik datorren gitarrajole ezaguna. Bestetik diskoaren hitzetan, hamaika kantetatik bi Juanma Labandibarrenak dira, Akelarre taldeko teklatu-jolea; Kepa Intsausti eta Xabier Sukia bertsolariaren laguntza ere presente dago arratiarren lehen disko honetan.

Hemendik aurrera Harrobi zuzenean entzutea besterik ez da falta. Zita egina dago jada, Gasteizko Gora tabernan joko baitute otsailaren 23an, Zinemastea, GEU eta Gora tabernaren arteko elkarlanari esker.

MOAI

harrobi taldearen kontzertua gasteizen

- otsailak 23, ostirala
- gora tabernan
- 20:30ean
- antolatzaileak: zinemastea, geu aldizkaria & elkarte, gora taberna





David Ibarra, kantaria

Oraingo honetan GEU aldizkaria Arratiaraino mugitu da, Igorre-raino hain zuzen ere. Bertan David Ibarra Harrobi taldeko partaide eta ahotsarekin hizketalditxo bat izateko asmoarekin.

David bera dimoztarra dugu eta gustura jaso gaitu arratialdean, Harrobi taldearen nondik norakoei buruz mintzatzeko xedeaz:

Harrobi taldea eta Moai diskoari buruz ezer ez dakien horri, nola deskribituko zenioke zuek orain gutxi aurkeztu duzuen lana?

Letra sakonak aurkituko ditu gure entzuleak, konprometituak. Estiloari dagokionez, pop-rock musika klasikoa gustatzen zaionari, Beatles, The Doors, Rolling Stones eta konpainia gustuko dituenak, haren ondoan, gu aurkituko gaitu Harrobiren musikarekin.

Hamaika kanta biltzen dira diskoan. Zertaz mintzo dira abesti hauek?

Abesti gehienetan agertzen den ildoak, gatazka politikoa da.

Nola eman duzue diskoa grabatzearen jauzia?

Apurke-apurke egindako lana izan da. Lehenengotan estudioan bi kanta



grabatzea pentsaturik genuen eta ondo irten zen gure saialdia, kolaborazioen laguntzaz betiere. Gainera Babel Music diskoetxeok animatu gintuzten abesti gehiago biltzen. Diskoa erdi eginda zegoenean disko osoa borobiltzera pasa ginen. Horregatik, diskoa poliki-poliki sortzen joan ginen, 4 hilabeteko tartea ere hartu genuen nora goazen, zer egin nahi dugun eta horrelakoetan pentsatzen.

Taldearen izena nondik dator?

Egin dugun diskoaren letren lotura da Harrobi, eta horregatik aukeratu genuen taldearen izen bezala. Harriak dira gizakiak borrokatzeko erabili dituen lehenengoko instrumentuak, gaur egun bonbak erabiltzen diren bezala. Hortik dator gure taldearen izena beraz, historiaurretik borrokatzeko erabili den harriaren harira.

Egin dituzuen zuzenekoetan nola moldatu zarete eszenatoki gainean?

Zazpi kontzertu inguru eman ditugu.

Diskoa maiatza aldera atera genuen, udara garaiko kontzertuetan aritzeko apur bat berandu, egia esan. Zuzenekoetara musikari onak eraman ditugu. Orain momentuan, gure gitarrajolea Mikel Erentxunek fitxatu berri du, bateria Alaitz eta Mainerrekin izana da, baxujoleak Anje Duhalderekin jotzen du... musika munduan eskarmentua duten musikariak dira

guztiak. Diskoaren grabazioak kalitate handia du, beraz zuzenekoak egiterako orduan ez dugu beste erremediorik izan horrela jokatzeko baino.

Epe laburrean zein kontzertu antolaturik duzue?


Ba egia esan, Gasteizen dugu hurrengo kontzertua, otsailaren 23an, Gora tabernan. Gure musika Araba aldean ezagutzera ematea gustatuko litzaiguke eta horrexegatik kontzertuak emateko prest gaude.

Etorkizunari begira, zein erronka berri planteatu dituzue taldean?

Aurten zuzenekoak egitea izango da gure erronka nagusia, ahalik eta gehien jotzea eta honekin batera taldea ezagutzera ematea. Agian kantu berriren bat sortu daiteke beste disko baterako, baina disko honen aurkezpena ondo egin beharra daukagu lehenik●

UNAI LOPEZ DE ARMENTIA, aktorea

Institutua amaitu eta antzertiaren munduan murgiltzeko ametsa betetzera abiatu zen Unai Lopez de Armentia Ingalaterrara. Jada, egun horretatik hamar urte igaro dira eta 28 urteko gasteiztarra bide onean dagoela esan daiteke. Izan ere, bestek beste, Zecora Ura Theatre konpainiaren sortzailea izan da, iazko Gasteizko Antzerki Jaialdian 'The Tempest' obra aurkeztu zuena, alegia.



“Pixkanaka nire antzerti-hizketa”

t. saioa fdz de arangiz

1998 urtean institutuko ikasketak amaitu eta Ingalaterrara joan zinen Antzerti ikasketak burutzera. Nolakoak izan ziren hasierak?

Ingalaterrara joan nintzen lehenengo urtea ingelesa ikasten eta lan egiten eman nuen. Ondoren, Antzerti Eskola batean Arte Eszenikoak ikasi nituen bi urtez eta bertan ikuskizunen mundua teknikoki, adminstratiboki eta artistikoki nola funtzionatzen duen ikasi nuen. Ostean, Londresera mugitu nintzen Rose Bruford Collagean onartu baininduten, Ingalaterrako Antzerti Unibertsitate zaharrenetarikoa eta inportanteenetarikoa, hain zuzen. Europako Antzerti-Arteak ikasi nituen bertan.

Ikasteaz gain, unibertsitatean ere hasi zinen murgiltzen antzerkiaren munduan...

Ikastaroari esker antzerti ekoizpenari buruzko ezagutza teorikoa eta praktikoa lortu nuen. Izan ere, unibertsitatean bertan beste hainbat ikaslerekin elkartu nintzen, nik bezala, egunero gure irakasleek suspertzen zuten sormena ikertzeko grina zutenak, hain zuzen. Gure irudimenarekin esperimintatzen hasi ginen, gauza berriak sortuz, eta pixkanaka gure lana unibertsitatean aintzat hartu zen.

Horrela, bada, sortu zen Zecora Ura Theatre, ezta?

Bai, apurka eta irakasleen eta hainbat erakunderen laguntzaz eratu zen Zecora Ura Theatre konpainia. Jakin gabe, hauxe izan zen jada 2002 urtean sortu genuen konpainiaren izena. Urte horretan lehenengo aldiz antzeztu genuen obra profesional bat Edinburgoko Antzerki Jaialdian. Geroztik, konpainia gure eskola izan da, baita gure kalbarioa ere.

Nolakoa da konpainia? Zenbatek osatzen duzue?

Hastapenetan hamar kide inguruk osatzen genuen konpainia. Hala ere, egun modu batez edo bestez ehundaka pertsonak parte hartu dute taldearen lan ezberdinetan. Lehenengo bost urteetan, konpainiaren izaera erabat

aktore zein zuzendari gisa untza propioa eratzen ari naiz”

esperimentala eta indibidualista zen. Bertan parte hartzen genuen kideok sormenerako askatasun izugarria genuen, baina ekonomikoki asko sufritu egin genuen.

Egun, aldiz, lau kidek eta administrari batek osatzen dugu konpainia eta oraindik arte eszenikoen mugekin jolasten badugu ere, gure lana komertzialagoa eta ulergarriagoa dela esan daiteke. Zecora Uraren azkeneko lana Shakespeare-ren Tempestad obraren bertsio bat da. Lan honekin hurbildu ginen iaz Gasteizko Antzerki Jaialdira.

Nola suertatu zen Gasteiza aktore profesional bezala itzultzea?

Egia esan, Gasteizen egon ginen hamar egunak pixkat kaotikoak izan ziren, niretzat behintzat. Etxean zazpi pertsona ginen, jaialdia eta antzezanarekin oraindik gauza piloa lotu barik nituen eta gainera, antzezanaren hizkuntza osoa aldatu behar genuen egun horietan. Berez, The Tempest obra hau lau hizkuntzaren (gaztelania, portuguesa, ingelesa eta euskara) fusioa da. Zorionez TAEko zuzendariak entseiuak egiteko lekua utzi zigun. Estreinuaren egunean oso nekatuta nengoen, gainera presio handia sentitzen nuen, lehen aldiz, nire hirian, nire familia, lagunak eta ezagunen aurrean antzeztu behar nuelako. Izan ere, hasieran kostatu bazen ere, aktoreok, eta baita publikoak ere, disfrutatzen hasi ginen. Horrela, obra amaitzean hiru aldiz irten behar izan ginen jendearen txaloak jasotzera eta bide batez, gure lanarekiko esker ona jasotzera ere. Hori izugarri polita izan zen, berezia, ezin da hitzekin azaldu.

Jada 10 urte igaro dira Gasteiztik alde egin zenuenetik. Beti bizi izan al zara Ingalaterran?

Hala da, dena den, Ingalaterrara etorri nintzenetik munduko beste zenbait lekutan ere bizi eta lan egin dut, esaterako, Brasilen, Portugalen, Frantzian, Finlandian edo Islandian. Beraz, bidaiatzea antzertiak eskaini

didan aukera nagusienetarikoa da. Are gehiago, mundua turista legez ezagutu bainoago, kultur truke aberatsen bidez ezagutzeko aukera izan dut.

Antzerti aktore ezezik, bestelako arloak ere ikutzen dituzu, ezta?

Pixkanaka aktore zein zuzendari gisa nire antzerti-hizkuntza propioa eratzen ari naiz. Gaur egun, hiru antzerti-talderekin egiten dut lan (Trestle Theatre Company, Spiral Flight eta Zecora Ura). Horrez gain, antzerti tailerrak ere ematen dizkiet bestelako konpainiei, aktore zein dantzari, bai eta adimen-urratasuna duten ume eta gazteei ere.

ZECORA URA THEATRE

Zecora Ura Theatre konpainiak, Rio de Janeiro eta Londresen ditu abiapuntuak. Bere asmoa antzerki garaikidearen kontzeptuei erronka jotzea da, ondoren hauek egungo antzerkian garatzeko helburuaz. Azken urte hauetan, taldeak interesgarria eta desafiatzaila den antzerki berri bat landu du eta horretarako, mundu osoko artistak biltzen ditu, hala nola, Britainia Handia, Euskal Herria, Brasil, Alemania, Colombia edo Finlandiatik etorriak. Berritasun artistikoa eta aniztasun kulturala nahasten ditu konpainiak, gaur egungo publikoari zuzendutako obra erakargarriak sortzeko.

Horrez gain, etengabe mundu osoko artistekin mantentzen ditu harremanak; hori dela bide, konpainiaren proiektuek egunotan beste antzerki taldetan gutxitan topatzen diren aldaketa eklektikoak eta berritasunak mantentzen dituzte. Obra esperimentalak, testu klasikoak bertsio modernoak, publikoaren parte-hartzea eta pertzepzioarekin jolasten duten obra originalak, haurrentzako antzerki lanak eta hezkuntza-proiektuak dira, batez ere, konpainiaren egitekoak.

Azkenik, asko dira taldeak bisitatu dituen herrialdeak ere, esaterako, Brasil, Japonia, Finlandia edo Portugal.



Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Epe laburrean, Frantziako Antzerti-ikerkuntza Zentro batera joango naiz artista egoiliar gisa. Bertan, nazioarteko beste artistekin batera, antzerti antropologikoaren inguruko proiektu bat landuko dugu. Gure asmoa, oraindik genero desberdinetan bananduak izan ez diren arte eszenikoen (kantua, dantza eta antzezpena) izaera artistikoak, zeremoniak eta erritual garaikideak aztertzea izango da. Aspalditik, adierazpen artistiko hauen balio kulturala, soziala eta erlijiosoa oso handia da, eta gure helburua erritmo, urrats, maskara eta abesti hauen mamia eta funtsa bilatzea izango da, gure sorkuntza artistikoan sormenerako tresna bezala erabiltzeko xedeaz.

Epe luzean, berriz, nire ametsa Euskal Herrira bueltatzea da, bertan antzerti konpainia/eskola bat sortzeko.

Zu aktore bilakatzeko hemendik at alde egin behar izan zenuen. Ez dago Euskal Herrian antzerti ikasketak egiteko aukerarik?

Nire ustez, gure herrialdean talentu artistiko handiko gazteak daude, gauza berriak sortzeko gogo handia dutenak, hain zuzen. Hala ere, formakuntza, enplegu eta diru laguntzen eskasia dela bide, gazte hauen gehiengoak Madrilera, Bartzelonara edo Nik bezala, atzerrira alde egin behar izaten du. Gezurra dirudi ikastoletan, institutuetan, unibertsitateetan edo lanbide heziketan benetako adar artistikorik ez izatea. Bestalde, penagarria ere bada, dauden antzerti eskola eta konpainia eskasek bizirik mantentzeko jasaten dituzten zailtasunak. Halarik ere, ilusioa, ideia berriak eta antzertian lan egiteko gogoak duten pertsonak dauden bitartean arte eszenikoen alorrean gauzak egingo direla uste dut.

“Ezin gara lo geratu, beste ardogileek

XABIER GOROSTIZA, enologoa



Gaztetan hasi zen familiako mahastien artean galtzen, eta egun, ardogintza du ogibide eta pasio. Otsaila eta martxoan, ardo dastaketa ikastaroa antolatu dute Araba Euskaraz-ek eta Diocesanas-Mendizorrotzako Ostalaritza Eskolak elkarlanean, eta bertan Xabier Gorostiza ariko da irakasle, ikasitako guztia irakasteko prest.

t. anakoz amenabar a. edorta sanz

Zein izan zen ardoaren munduarekin izan zenuen lehendabiziko harremana?

Familiak mahasti bat zuen Eskuemagan Hasieran beste upelategi batzuetara saltzen bazuten ere, 1990ean hasi ziren ardoa merkaturatzen, eta aitarekin batera, ni ere laguntzen hasi nintzen. Hala, ardoa Gasteizko tabernetan saltzen, hamar urtez egon nintzen. Handik Guardiara joan eta ardoari buruzko ikastaro batzuk egin nituen. Orduan upelategietan lanean hasi nintzen, gaur arte.

Zergatik hartu du, azken urteetan, halako garrantzia ardoak? Moda kontua bakarrik?

Moda bat baino gehiago, bertan genuena ezagutzera ematearekin batera hasi zaio garrantzia ematen. Orain dela urte batzuk ez zen ezer

esaten ardoari buruz, misterioa zen, bodegak itxita zeuden. Eta gaur egun, horren inguruko turismoa eta ardoari buruzko jakin nahia ere hazi da.

Kontsumoak, hala ere, behera egin du nabarmen

Bai, orain dela hogeita hamar urte pertsona bakoitzeko edaten zen litro kopurua bikoitza zen. Orain, aldiz, kantitateari baino kalitateari begiratzen zaiola uste dut. Duela urte batzuk baino kalitate handiagokoa edaten da, eta jendeak badaki zer edaten zuen. Jende gaztea hasi da edaten duenari buruz ardurua gehiago jartzen.

Kontsumoa jaitsi eta aldi berean inbertsio gero eta handiagoak. Zein da arrazoia?

Geroz eta upelategi gehiago dago, eta lehia, beraz, geroz eta handiagoa da. Jatorrizko izendapenen artean garrantzitsuena zen duela urte batzuk

egingo dutenaren zain”



Arabako Errioxa, orain, berriz, 62 daude Espainia mailan eta leku guztietan ardo ona egiten da. Horregatik, promozioa garrantzitsua izan da. Egia da badagoela orain arkitekto famatuak ekartzeko moda, baina errealtatearen alde bat baino ez da hori. Eman nahi zaion glamour hori oso ondo dago jendea erakartzeko, baina beharrezkoa da desberdintzen gaituen beste zerbait bilatzea.

Ghery eta Calatrava erraldoiak tartean, txikiek badute etorkizunik?

Ardoan zikloak egoten dira, igoera eta jaitsiera ugarirekin. Urte batean normala izaten da prezioa, eta beste batean izugarritzko igoera izan dezake. Upelategi askok ezin dute hori jasan, zoritxarrez, eta merkatuan egoteari uzten diote. Eta Araban aipagarria da hori. Izan ere, upelategi txiki asko dago. Hauetan artisauna egiten da, kalitate prozesua errespetatuz, eta orain dela urte askotako teknikekin. Baina merkatuak hauek denborarekin irentsi egingo ditu, seguruenik.

Dastaketa prozesua hasi behar dugu. Zeintzuk dira kontuan izan beharrekoak?

Azken batean ardogileak eta etiketak dioena egiaztatzea izango da gure helburua. Botilan ardo ondua edo tenpranillo ikusten badugu, sinetsi dezakegu ala frogatu. Horretarako, koloreak, usaimenak eta zapoak pistak emango dizkigute. Kolorearekin ardoaren urteak jakingo ditugu, gaztea den edo ontze prozesua jasan duen. Usaimenarekin barietatea jakin ahal izango dugu. Lehen, bigarren edo hirugarren mailako aroma duen. Ikusmenak ere horretan lagunduko digu.

Gai zara, beraz, etiketa ikusi gabe ondua edo erreserbakoa den jakiten?

Bai, geroz eta jende gehiagok daki bereizten. Eta hain zuzen orain dela hainbat urte hala erosten zen ardo. Dastatu eta horren bitartez ardoaren kalitatea neurtu eta prezioa ere jartzen zen.

Afaltzera joan eta ardoak bikoiztu egiten du prezioa. Justifikatuta dago hain garesti izatea?

Horren inguruan eztabaida garrantzitsua dago. Egia da ardo bikoiztu edo hirukoiztu egiten dutela askotan jatetxeek. Lau pertsona afaltzera joan eta bigarren botila eskatuta prezioa asko igotzen da, eta zalantza pizten du. Jatetxearentzat ere interesgarria da bigarren botila hori. Baina askotan ez dago justifikatuta prezioa. Nik beti muga bat jartzen dut, hortik aurrera prezioa igo daiteke baina ardoak ez dizu balio hori emango.

Bigarren botila edanda, alkoholemia kontuak gainera

Bai, asko nabaritu da ardoaren eguneroko kontsumoan. Europartu nahi gaituzte. Jendeak gero eta gehiago erosten du ardo supermerkatuetan eta etxera eramateko. Guk, hala ere, kaleko giroa gogoko dugu, eta hori mantendu behar da, nahiz eta zerbait gehiago kontrolatu behar.

Eta betiko botila eta kortxoa ere mantendu behar?

Ardogintzan tradizio gutxi duten lurraldeetatik heldu dira silikonazko kortxoa edota botila beharrean lata saltzeko era. Edan behar duzun ardo ikusi behar dela uste dugu, ordea. Eta kortxoak beharrezko oxigenazioa eta zaporea ere ematen dizkio.

Etorkizuna nola dator?

Nire ustez ongi. Gero eta interes gehiago dago ardoaren munduan. Baina ezin zara lokartu, beste ardogileek egingo dutenaren zain, bestela merkatuak alde batera uzten zaitu. Lehia gogorra da Europa mailan eta baita mundu mailan ere. Argentina, Txile edota Zeelanda Berria gogor datoz. Estatu mailan %47koa da Errioxar kontsumoa, eta liderra da. Baina horregatik ez da dirurik inbertitu horretan eta promozioa behar da●

ardo-dastatze ikastaroa

irakaslea: xabier gorostiza enologoa

iraupena: 24 ordu

datak: otsailaren 20tik martxoaren 16ra bitartean, astearte eta ostiraletan

[otsailak 20-23-27 / martxoak 2-6-9-13-16]

ordutegia: 17:00-20:00

lekua: diocesanasmendizorrotzako ostalaritza eskola gehienezko kopurua: 20

matrikula prezioa: 100 euro

antolatzaileak: araba euskaraz 07 & diocesanasmendizorrotzako ostalaritza eskola

laguntzaileak: abra, arabako foru aldundia, geu aldizkaria

izena emateko epea: otsailaren 9ra arte

615731850 arabaeuskaraz@ikastola.net

cd-a

biluzik

kauta | 2006ko urria | www.kauta.net

kauta taldearen 'biluzik' diskoa hiru aldaketa nagusirekin dator. Bat, kauta laukote izatetik hirukote izatera pasatu da. bi, kauta taldea azken urtean ez da geldirik egon eta hausnarketa-prozesu sakona izan du; lehen diskoan metala bazen garaile, orain metal ukitu xumeak ditu. kauta taldeak rock arlora egin du jauzi, eta hainbat abestitan hard-core doinuak indar guztiz sartzen dira. dena den, kauta taldeak melodiaz eta lelo erakargarri janzten ditu rock eta hard-core doinuak. hiru, kauta taldeak luxuzko abeslaria du, bera da taldearen zutabe trinkoa eta babeslea. mikel abeslariak kantu azkarrenak ere laztandu eta erakargarri bihurtzen ditu. haren ahots hunkigarria zeurea egiten duzu entzun eta berehala. kauta taldeak rock eta hard-core melodikora bideratu ditu ahalegin guztiak eta, noski, ahotsaren melodietara.



liburua

loti ederrak

yasunari kawabata idazle japoniarraren eleberria euskaraz
ibon uribarri | alberdania & elkar, 2006

eleberri misteriotsu bezain magnetiko honek maitasunaren arrakaletan eta sexuaren amildegietan barrena eramango gaitu, oroiminarene eta ederminaren eskutik, idazkera fin, ñabar, dotore eta iradokorrez.

egutxi agurea etxe berezi batera doa: neskato gazte eta birjinak egoten dira bertan, ohean biluzik eta drogaren baten eraginez lokarturik; horretarako dirua daukaten gizonetako adinduen ondoan pasatzeko gaua, haien kontsolagarri baina sexu-harremanik gabe...



zinea

agian

euskal herria, 2007 / zuz.: arkaitz basterra zalbide / dokumentala

arkaitz basterra zalbide zinemagilearen 'agian' filma 'zaharregia, txikiegia agian' proiektuari buruzko dokumentala da eta kirmen uribe, mikel urdangarin, rafa rueda, bingen mendizabal eta mikel valverde ditu protagonista.

egitasmonek kirmen uribe poeta eta mikel urdangarin kantaria new york hirira eraman zituen 2003ko udaberrian. beraiekin batera 3 lagun joan ziren: bingen mendizabal eta rafa rueda musikagileak eta mikel valverde irudigilea, egitasmolari sendotasuna eta dotorezia gehitzeko asmoz. arrakasta handia eduki zuten bira horretan, eta orain filma batean islatuko da hori.

euskarari buruzko poema batetik harturikoa da izenburua, eta zabaldu nahi duten mezua laburtzen da bertan: "euskaldunok munduari begiratzeko modu jakin bat eskaintzen dugu, bizitzeko eta sentitzeko modu bat". irakurketekin tartekatuta, kantuak eta kolorez beteriko proiektzioak ere ematen dira.



SARAREN BASOA

[txabi arnal gil]

BROOOUMMM!!!

Urjauziaren zaratak Sara esnatu egin zuen. Sara pozik bizi zen basoan. Egun batean sabanara joan zen bere lagun lepaluzeari bisita egitera. Lepaluzea triste zegoen. Zebra izan nahi zuen, eta lepo laburra eduki...



Sara umea basoan bizi da. Egun batean sabanara doa bertako lagunak bisitatzen, hau da, lepaluzea, zebra, hipopotamoa, krokodiloa, elefantea eta ostrukak. Eta, horra hor, bisitaldi honi esker bere lagunak daukaten itxurarekin gustura ez daudela jakingo duela. Sarak guztiakin hitz egingo du. Desiratzen duten aldaketaren alde itsusiena erakutsiko die. Eta komenigarriena delako, diren bezalatsu jarraitzeko konbentzituko ditu azkenik. Hala ere, Sara bera, "konbentzitzailea", ez dago ziur. Galdera bat darabilkio buruan: Animalia perfekturik ba al dago? Oihaneko postariak eta izango duen amets batek erantzuna emango diote.

Sararen bitartez, Emilio Urberuagak denok inoiz izan dugun kezka bat dakarkigu: eta honelakoa izan beharrean horrelakoa banintz? Baina, egia esan, gaian ez datza, hain zuzen, liburu honen erakargarritasun handiena, gure buruarekin konforme ez egotea ipuin askotan jorrotua izan baita (eta batzuetan era egokiagoan). Urberuagaren lanaren benetako indarra irudietan dago, horien adierazkortasunean eta, batez ere, koloreen trataeran. Horretan bai dugula maisu Urberuaga jauna.

Besterik? Bai. *Sararen Basoa* taxuera simple eta merkean heltzen zaigu. Hala eta guztiz ere, ederra. Eta hori, jakina, eskertzeko modukoa da.

Sararen Basoa. Emilio Urberuaga. Nekane Umerez-ek itzulita. Ibaizabal 2002



★ **IZARRA TABERNA - JATETXEA**
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

G
GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

uetzal
*Hegoamerikako
jantzirik ederrenak*
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

bar • restaurante
albéniz
Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ


ERROTA
HORTZ KLINIKA
Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxa. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net


Argazki - Estudioa
Erramun
Heracio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tfno: 13 71 02 Tfno: 26 19 91
01006 01004

ARANBIZKARRA
**ZURE
AUTOESKOLA!**
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaituz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Euskadik
behar zaitu**  **EAJ
PNV**



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

ARABA eta topikoak (I)

[kike fdz. de pinedo, filologoa]

Nola ikusten dugu eta dute Araba?

Araba, jakina denez, ez da beti gaur ezagutzen dugun bezalakoa izan. Ez dakigu zehazki noiz sortu zen, baina VIII. mendetik aurrera kronika arabiarretan (gehienetan *Alaba al-Qilá* -Araba eta gazteluak-izenarekin) eta kristauean (Alfontso III.aren kronikan) esaten da *Alabanque* -Araba- beti izan dela bertako biztanleena, eta ez musulmanena. Hedapenari dagokionez, mendeetan Lautada eta inguruko lurrek osatu zuten *Araba nuklearra* deitutakoa, eta 1568 urtera arte ez zuen hartu gaur egun duen tamaina, Trebiñu, Lapuebla Argantzón, Miranda, Pancorbo, Villalba de Losa, Losa, Saja eta Orozko bidean galduz.

Bitxia da zentzu honetan XVIII. mendean oraindik Mendialdeko hainbat herritako (Musitu, Erroitegi...) agirietan honelakoak irakurtzea: "...en el camino que se va a Alava...". Hau da, Araba Lautadarekin lotuta. Gaur egun ez dago horrelakorik, baina ez dut uste oraindik erabat kohesionaturik dagoenik. Edo beste

modu batean esanda, arabartasuna ez dut uste berdin sentitzen denik eskualde guztietan. Arabaz dagoen ezagutzaz ere dudak dauzkat. Eskualde bateko gazteek beste eskualdeak ezagutzen al dituzte? Harreman handirik ote dagoen Mendialdeko eta Gobiarango gazteen artean, esate baterako? Eta Gasteizen? Bale, denetarik dago, baina ez al dago jende asko, arabar (eta euskaldun) bainoago, batez ere *vitortiano* sentitzen dena, eta Arabako bazterrak gehiegi ezagutzen ez dituen?

Eta gure herrialde anaiak nola ikusten dute Araba?

Esan dezagun, ezer baino lehen, azken urteetan joan-etorri ugariagoak eman direla (ikasleak, lanera etorritako jendea) eta hedabideei esker ere Araba ezagunagoa dela lehen baino, eta ondorioz hauetako jende askoren pertzepzioa aldatu dela onerako. Baina, oraindik orain, nahikoa ezezaguna dela esan liteke. Eta zoritxarrez, noizean behin, zenbaitzuen ahotan betiko topikoak entzutea jasan behar dugu. Gustuak subjektiboak direla badakigu, eta uler dezaket, adibidez, bati baserriz ziprztintutako larre eta mendi guztiz berdeak baino ez gustatzea. Baina

**ez aipatzeagatik,
orain dela gutxi
gazte bati
entzundakoa:
"barazar portutik
aurrera (edo
etxegarartetik) dena
kastilla". no
coment!!**



EGUR

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goian Industrialdea
Tl/fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)



**eusko
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



**Gazte
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola 2/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI



askotan iritzi hauen atzean "benetako" euskal irudiarekin alderaketa egiten da. Hots, zenbat eta gehiago alden du "euskal" irudi mitiko horretatik balio gutxiago (edo nota gutxiago).

Aurreiritziekin batera historian zehar hainbat **goitzen** izan ditugu: babazorroak (Erdi Aroan jada erabilia: "...*estos Garçias de Illaraza también se nombran Gastuas y Babaçorros...*" -Ibarguen-Cachopin Kronika-); *sugea*

eta arabar bar ikusiz gero utzi sugea eta hil arabarra (antza, gerra karlistetan sortua); *alavés falso y cortés*; eta azken bi hamarkadetakoko *patateroak*. Azken hau sinpatikoena iruditzen zait, baina tuberkulu hau, ez da jende askoren ustearen kontra egungo produktu izarra, are gutxiago azken urteetako prezioaren beherakadarekin. Lehen eta orain zerealak izan baitira gure soroetan nagusi, betiere mahastiak ahaztu gabe.

Lurraldearen topiko nagusiei helduta hiru direla esango nuke: **Araba laua eta lehorra, erdalduna eta ezdeusa edo pobrea**. Has gaitezen aurrenekoarekin, besteak hurrengo artikuluetarako utziz.

Araba laua eta lehorra

Egia da Araba Nafarroarekin batera ez dela beste lurraldeak bezain menditsua eta hezea. Baina, besterik gabe Araba laua eta lehorra ikusten dutenek **N-1 sindromea** dutela esango nuke. Hau da, Arabaren ezagupena, batez ere, Ziordiatik Miranda doan errepidetik ateratako argazkia: arbola gutxi, galsoro asko eta lautada luzea, eta Errioxan mahastiak eta bodegak. Jakina Aiara, Zigoitia, Zuia, Gobiaran, Entzia edo Izkiko amezti, pagadi, harizti, jatorrizko pinuak eta bestelako basoen n.p.i. Ez aipatzeagatik, orain dela gutxi gazte bati entzundakoa: "Barazar portutik aurrera (edo Etxegarartetik) dena Kastilla". No coment!!●

araba laua eta lehorra ikusten dutenek N-1 sindromea dutela esango nuke

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO. 143883

GASTEIZ

Dalvez
argitarazleak

diseinu grafikoa diaz de olano kalea, 22 tl: 652 77 65 09
maketazioa fx: 945 24 52 69 info@dalvez.com

bai
Guk zerbitzua euskaraz



bitxiak / zilarra / osagarriak

negurako prest!

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



inauterietan barna



ERREZETA

UR IRAKINETAN EGINDAKO ARRAUTZAK, SASOIKO BARAZKIEKIN

[diocesanar-mendizorrotzako ostalaritza eskola]

> Lau lagunentzako
osagaiak:

- Baserriko arrautzak, 4
- Ilarrak, 100 g
- Tuterako orburuak, 4
- Zainzuri puntak, 8
- Zainzuri berdeak, 4
- Tipulin fresko bat
- Kenebe patata bat
- Urdaiazpiko iberikoa, 100 g
- Hegazti salda, 250 cl



Tipulin freskoa zerrenda mehetan ebaki ondoren, poliki-poliki egingo dugu sutan, patata xehatuarekin; saldarekin bustiko dugu guztia, eta egosten utziko diogu bost minutuz. Ondoren, ilarrak erantsiko dizkiogu, eta beste bost minutuan utziko dugu sutan. Guztia birrinduko dugu, krema fin bat lortu arte, eta gerorako utziko dugu. Orburuak ondo garbitu ondoren, sei zatitan zatituko ditugu, eta ondo berotutako zartagin batean bi minutuz su bizian erregosiko ditugu. Zainzuri puntak beti bezala egosiko ditugu, eta jaki hau prestatzeko, egosi ondoren (al dente utziko ditugu) plantxan erreko ditugu apur bat.

Egin arrautza ur irakinetan, eta utzi gerorako.

Platerean ateratzeko, plater sakon bat erabiliko dugu; azpian ilar krema jarriko dugu, eta gainean orburuak, zainzuri puntak, arrautza eta urdaiazpiko zatiak; eta bukatzeko zainzuri berdeak mandolinarekin xerra mehetan ebaki ondoren, xerra horiekin apainduko dugu.

BAKE PROZESUA
SUNTSTITUTA DAGOELA,
AGIAN ORAINDIK ITXAROPEN
KUTSUA GELDITZEN DELA...
BETIKO MATRAKA!

JAKIN ALA EZ,
DEN-DENAK PRENTSAURREKOAK
EMATEN ETA BLA, BLA,
BLA...

BA HAU EZ DA
NIRE KASUA IZANGO.
EZ DUT AGIRIRIK
ZABALDUKO...

BAKARRIK
GOMENDIO BAT:
IRAKURRI LIBURU HAU
ETA HAUSNARKETA
EGIN...

AH! BADAGO
FILM BAT ORSON
WELLESEK ZUZENDUTA
EZ BADUZU IRAKURRI
NAHI...



ES SARASOLA



[MUNDINA]

GASTEIZko UDALA



LANEAN GAUDE

Gaueko txori gorria...

[erlantz urtasun antzano. historialaria]

“Gaueko txori gorria, hatoz eta, hire kabira, eroan nazak, eroan nazak”. Tikitan entzuten nuen abesti hori biziki maite dut oraindik. Gorka Knörr arabar egilearena, oroitzen dudana da negar eginarazten zidala, behin eta berriz, eta horregatik erabaki nuen oso noizbehinka entzuten nuela, unikornio azularen gisa, hain doinu eta hitz sentiberak maizago aditzeak bihotzean mina eragiten zidalakoan.

Bazuen, izan ere, enetako berezi-berezia zen bertso bat: “haiek trukatu zuten, historia hura, konta zaidak”. Eta ni, irakurle goxoa, sinetsiez zaidazu, lau urte bete aurretik jakin banekien historialaria izanen nintzela. Horrela oroitzen dut, behintzat, oraindik irakurtzen ez nekiela nola hartzen nituen, ene kasa eta gurasoen harridurarako, txintxo-txintxo, eskuak xaboiak ongi garbitu eta gero, azal gorria zuten entziklopedia marduleko aleak, goiko apalategian zirenak, nola jartzen nituen oin tipi biluziak sofaren gainean haraino iristeko, antzinateko historia argazkiak, irudiak neureganatzeko. Zergatik? Inoiz ez dut, dugu, jakin.

Tikitan espero ez nuena zera zen, denboraren poderioz Eliseo Gil, Idoia Filloy, Ruben Cerdan, Kike Fernandez de Pinedo eta enparauak ene “gaueko txori gorri” partikular, berezko, propio eta, itxuraz, “intransferible” bilakatuko zirenik. Eta euskal historiako atalik ilusionagarriena, erromatar aldiaren eta Oka Iruñan, gure orduko umeek idatzi zutena.

Horrela amaitzen baitzuen Gorkak, hausten zitzaion ezin ahots ederragoan: “Ene egiazko egoera, erakuts zaidak, argidazu bidea, irtenbiderik ez zegok, haiek kalera bota gintuzten eta... Gaueko txori gorria, hatoz eta, hire kabira, eroan nazak, eroan nazak”.



“ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU DIRA HISTORIAN ZEHAR?” (XI)

Bada, Araba maitian, irriñoa egiten digun tokitto bat, hain zuzen ere urte luzez “Orenin” deitu izan dena. Zer nahi duzue, pazientzia handiko irakurle fidelak, nik, hori aditu eta, nahi gabe, “oreina” izena datorkit bururat. Bai, badakit txorakeria dela eta etimologiekin ez dela “jolastu” behar, edota, hobe errateko, alferrikako hitzak ez direla isuri behar. Baina, zilegi bekit, adiskideok, mesede hau ene kabuz hartu eta, ixilean izan arren, bihotzez nahiago izatea.

Horraino, gogo. Hemendik aitzinerat, baina, paper zaharrek erakusten diguten errealitate historikoa. Izan ere, toki bera “Orengohin” idatzi baitzuten duela mila urte. Gero, bai XIII, XVI edo XVII. mendeetan “Oreñayn”, “Orenain”, “Orinain” edo “Oriñain” arropaz janzteko.

Orenain, Orenin... Bertako nafar euskaldunek Urdiain herriari “Urdin” diote oraindik ere. Beraz, ziurrenik euskal jendearen artean gauzaturiko ibilbide fonetikoa, bertzerik ez du frogatzen eskaini dugun hitz zerrenda luzexkak.

Bon, eta hemen garrantzitsuena, aurrekoa dena delakoa izanda ere, “Orenin” Ulibarri-Ganboako urtegiko uren azpian omen da, itota, preso. Eta, hori gertatu zenaz, aurki urrezko etzeiak edo, zoritxararen urtemuga. Wikipediak errana, ez nik.

[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es]

EGUNEAN-EGUNEAN BIZITZEN IKASTEN DUGU ELKARREKIN



Koldo Mitxelenan ikasten den lehen gauza da euskara Euskal Herriko ezaugarririk behinena dela. Horregatik, mundu zabalean hainbat kultura galtzeko arriskuan dauden garaiotan buru-belarri jarduten gara gure hizkuntza berreskuratzeko asmoz. Euskaltasunetik begiratzen diogu munduari

KM

KOLDO MITXELENA INSTITUTUA

DBH / ESO

Behenafarroa z/g Tlf. 945 26 22 33

www.koldomitxelena.net

ezker independentea



ar

aralar

ezker independentista

www.aralar.net

araba@aralar.net

945 252631

ZINEMASTEIA

23 semana del cine vasco

vitoria-gasteiz.2007

febrero
otsailak **26** ➔ marzo
martxoak **3**

Agian

Locos por el sexo

Nomadak TX

Kutsidazu Bidea, Ixabel

La distancia...

LABURRAK • HAURRENTZAKO EMANALDIAK • ETA ABAR

Sarrerak eta Informazioa: Cultural Alava 945 15 01 47

www.neffestival.com

www.kreared.com



KREA
EXPRESSION CONTEMPORANEA

Caja Vital Vital Kutxa

NEFF
www.neffestival.com

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteiz 48901



Diputación
Foral de Alava



Arabako
Foru Aldundia

CULTURAL Álava
araba KULTURALA


BADATOR

Abt_x07

Arabako Mendialdeko errebantxa saria

Otsailaren 10ean, Larunbata

19:00etan Kanpezuko Kultur Etxean



Iñaki Viñaspre



Asier Otamendi



Juan Mari Juaristi



Oihane Perea



Zigor Enbeita



Manex Agirre

22:00etan HERRI AFARIA ELORTZAN (Lurkoï Baserri eskolan)

Izena eman Arabako Bertsozale Elkartearen Otsailaren 6a baino lehen

· Telefonoz: 945 01 05 05 · e-postaz: araba@bertsozale.com

ARABAKO BERTSOZALE GAZTEEN TOPAKETAK, ELORTZAN (Maeztu)

OSTIRALA, Otsailaren 9

20:00etan BIRGALAKO "BERTSO ETXEARI" BISITA
22:00etan AFARIA
23:00etan GAZTEEN BERTSO FESTA
(AIARAKO UHINAK IRRATIKO GAZTEEK GIDATUA)



LARUNBATA, Otsailak 10

09:30etan GOSARIA
10:30etan INGURU ABENTURA ZUÑIGAN (Puenting eta Tirolina)
13:30etan BAZKARIA
19:00etan KANPEZUKO ERREBANTXA SARIRA TXANGOIA
22:00etan AFARI HERRIKOIA (*Topaketetik kanpokoek 15 euro)

IZEN EMATEA: ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAN, otsailaren 6a baino lehen.

PREZIOA: 35 Euro

Arabako Bertsozale Elkarteko kontu korrante honetan sartu
2097 0112 92 0008342255 (Kontzeptuan izen-abizenak jarri)

INFORMAZIO GEHIAGO:

Arabako Bertsozale Elkartea
Benito Pérez Galdós z/g
01002 GASTEIZ
Tel: 945 010505 - 615790677
e-posta: araba@bertsozale.com



COLABORADORES-LAGUNTZAILEAK:



KANPEZUKO - ARABAKO
MENDIALDEA ESKUALDEA
CUADRILLA DE
CAMPEZO - MONTAÑA
ALAVESA



KANPEZUKO Udala
KULTUR BATZORDEA

Arabako
Bertsozale
Elkartea



XVII.Mendea Elkartea



Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia



GIZARTE EKINTZA
Obra Social
Caja Vital Vital Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

